

anaitasuna

1977.EKO UZTAILAREN 1EKOA 343.ZENBAKIA 35 PTA



KOLORE KONTUTAN
Ni BAIÑO
ABI LAGOA HAIZ
TXO!

ixO!



geure herri eta jendeen alde



3. Editoriala
- 4-5. Euskal parlarn ntarien biltzarrea Gernikan
6. Hauteskundeen ondotik
7. Euskal preso baten barkartate urruna
- 8-9. Hauteskundeak E. H.
10. Askatasunaren ibilaldia
11. Zain dezagun Busturialdea
- 12-13. Zientzia euskaraz
- 14-15. Opusekoen istiluak
- 16-17. Final galduaz gogoeta
- 18-19. Baserria
- 20-21. Inflazioa
- 22-23. Chartre de Brest
24. IN MEDIO STAT VIRTUS
- 25-28. Komikia
29. Sukaldeko saltsak
- 30-31. Elkar Ikuska
- 32-33. Robert Austerlitz-ekin hizketan
- 34-35. E. H.ren symboloez
36. Oinarrizko Euskara
37. Doña Prudentzia
38. Parabolak
- 39-41. Literatura
- 42-43. Artea
- 44-45. Musika
46. Postak
- 47-49. Sexual harrera nak (I)
50. Kaleko

Lege Gor: BI - 1753-1967



TXARRIK ONENA

Hauteskundeak etorri eta joan egin dira. Ez da sorpresa handirik egon. Guztiok alde aurretik genizkien ondorioak irten dira. Inkestatzaileek begi ona zeukaten. Gurean Herriak, Herri kontzientziatuak, frankismoaren garairik okerrenetan gogorrenik burukatua, abstentzioaren alde; besteak, jarri dioten demokrazi giro mugatuan, txarrik onena delakoan, legezko ziren alderdi abertzaleen alde eman du bere botua. Gaitzerdi. Espainian, oro har, Alianza Popular, Demokrazia Kristaua eta PCE pitutara joan dira. Centro democrático eta PSOE garaile, alde aurrez pentsatzen zenez. Suárez nagusi berriz ere, baina oraingoan Herriaren botuez indartua, beraren ordezkari gisa.

Euskal Herrian orain —amnestiaren arazoa oraindik konpontzeke— autonomiaren kontua datorkiguke. Berau ere txarrik onena dateke. Centrokoak Araba eta Bizkaiaren partez, besteekin, Gernikan bildu ziren, beraietako batzuk Gernikako Arbola kantatzen ez zekitela erakusteko besterik ez bada ere. Nafarroakoak, ordea, horrexetarako ere ez. Beteriko kontuak. Hor ditugu guk geure separatistak.


Kataluniako Assemblée de Parlamentaris delakoaren antzera, hemengoak ere biltzen hasi zaizkigu, baina erdaraz, nolabaiteko Autonomi Estatutu bat burutzeko. Jadanik euskararen ofizialkidetasuna aldarrikatu dute, beren burua Asamblea de Parlamentarios Vascos deitzen dutenok, guk geuk, beraiek esaten ez digutelako, nola izenda jakin ez arren. Gure ustez elebitasunaren arazoa konpontzeko, au-

tonomiarena bezala, teorikoki ulertu ez, baizik eta eguneroko bizitza praktikoan sentitu ere egin behar da. Askok egiten ez dutena, hain zuzen. Ondorioak halakoxeak izanen.

Pertsona bat hil beharra beti da tamala, dudarik ez. Baina horrek ez ditu garbitzen berrogei urte luzeotako zapalkuntza, aginkeria, gartzelamendu, anti-herritasun eta diktaduraidetasunak. Lehenago frankisten aldizkari-irratietan ikusi eta entzuten genituen titulare berberak irakurri ditugu, baina oraingoan orduko egoeraz orain arte kexatu izan direnengandik. Gaurkoak atzokoa ahantz erazi. Beltza zuri eta erdaltzaletasuna euzkalerriaganako maitasun gisa azaldu zaigu. Humanismoa berria, agian. Gure ustez, kondena egiteko dena kondenatu beharra dago: ondorioa eta zergatia. Bata ixiltzen den artean bestea salhatzea betikoei joku egitea besterik ez da. Baina batzuk holako demokrazi itxurakerietara ongi ohiturik gauzkatu aspaldidanik. Harturiko mesedeengatik ba dakite, guttienez, esker (eta ezker) oneko izaten.

Eta berrogei urte ilunetako oroipenak ez gaitu hain erraz abandonatu nahi. Burgosen, guretzat hain gomuta tristeak dauzkan Burgosen, euskaldunen kontrako atake probokatzaile eta lotsagarria gertatu da bortxa publikoaren begi ezikusleean aurrean. Demokrazia berriaren seinale, berau ere. Batzuk, inolako erantzunkizunik gabe, gogokoak ematen diena egiten segitzeko eskubide eta bulda daukaten artean, tabu publiko izaten dirauten artean, guk sinesgogor izaten segituko dugu, egiazko demokrazia, Herriak nahi eta beragatik hainbeste sufritu duen demokrazia besterik delakoan.

euskal parlamentarien biltzarrea gernikan



Ekainaren 19an Euskal Herrian eta azken hauteskundeetan aukeraturiko 28 parlamentari bildu ziren Gernikan. Hamahiru bakarrik falta ziren, Letamendia eta Bandres beren artean, azken hau Euskal Herritik kanpoan egoteagatik. Gernikan PNV, PSOE eta UCDeko hainbat aukeratu ikusi genituen independente edo aske batzurekin batean. Han, Gernikako Haritzaren itzalpean, elkar esku emateak, irribarreak eta besarkada beroak ikusi genituen. Hauteskunde egun gogorrak atzean ziren eta Euskal Herriko ordezkari multzoak lasaitasun eta arrakasta epea izan zuen Arbola Sainduaren babesean.

Egun eder bat izan zen Gernikakoa, benetan. Hauteskundeetako irabazleen elkarte jeltzale multzo handi baten aurrean egin zen, Bizkaitik eta Gi-

puzkoatik etorritako hainbat zahar eta adin erdiko milaka pertsona lekuko. Autobusak, hamar t'erdietan hasiak ziren Gernikara heltzen. Jantzi beltzez jantzitako emakume talde bat autobus batetatik jaitsi eta, txistulari biren atzetik, Arbolarak daramaten eskilarak igaten ikusi genituen, "Gora Sabino Arana", "Gora Jose Antonio Agirre" eta "Gora Euzkadi" garrasi zorrotzak botatzen zituzten artean. Norbaitek Arbolaren inguruetan ipinitako bandera kendu eta ikurrina jarri zuen, lekukoaren txaloren artean. Iganderoko hamaiketako meza egin behar zela eta zin-elizan, hara heldutakoek ordu erdi bat itxaron behar izan zuten. Iganderoko meza hau erdaraz eta latinez egiten omen da, esan zigutenez.

Meza amaitzean, diputatu eta senadoreak Haritzera heltzen hasi ziren. Han izan ziren txalo eta oihuak. Ajuriagerrak eta Irujok irabazi zituzten txalo gehienak, Múgica Herzog abertzale berria irribarrez horniturik agertzen zen artean. Gaztetxo batek "Gora EGI" garrasi egin zuen, orma baten gainetik gizon batek "Elkartasuna, elkartasuna" oihukatzen zuen artean. Emakume multzo batek "Euzko Abendaren Ereserkia"ri ekin zion sutsuki. Pizkanaka, hauteskundeetan aukeraturitakoak, Arbolaren aurrean jarri ziren, argazkilariek beren lana egin zezaten. Ajuriagerra, Irujo eta Herzog jaunak erdian ipini ziren. Gero, astiro astiro, zin-eliza barrura sartu ziren, jende multzoaren artetik zailtasun





handiz pasatu ondoren. Herria ere sartzen hasi zen eta bertako esertokietan jarri zen, diputatu eta senadore berriak beheko esertoki zerrendan gelditzen ziren artean. Kazetari eta argazkilariok ez genuen erraztasun handirik aurkitu geure lana egiteko eta, hurrengorako, komenigarri izango litzateke berriemaileen lana érrazago bihurtzea.

Eguerdi ingurutan hasi zen serioски biltzarrea. Irujo jaunak guztioi ongi etorria eman zigun, herriak aukeratutakoei batez ere. Ongi etorria erdara hutsean izan zen, inork ez baitzuen gure hizkuntzari omenalditxo bat egin nahi histori une honetan. Baten batek gero, erdaraz, euskararen koofizialitatea eskatu zuen, noski, gure politikari guztiek egiten duten bezala. Betiko kontua... Eskerrak Xabier Arzallus jaunak bere euskara argian hitz batzu esan zituela, "barkatu" esan ondoren. Barkatuta zaude, Xabier, nahiz eta une historiko hartan erdal giroa apurtu eta euskara egiten ausartu.



Gernikan Ekainaren 19an entzundako hitzak ederrak izan ziren. Amnistia osoa eta atzerriratuen etxeratzea Madrilén eskatuko dutela egin zuten promes diputatu eta senadoreek. Norbaitek helburu horik Madrilera joan baino lehen heldu behar zirela esan zuen, baina gero arazo hau ez zen oso argi gelditu, beste batek helburu hau Cortes barruan egingo den lehen biltzarrean eskatu beharko direla esan baitzuen. Ajuriagerrak eta Múgika Herzog-ek gidatu zuten Euskal Parlamentarién osatze-biltzarre hau. Asanbladaren lehen helburuak amnistia, etxeratzea, euskararen koofizialtasuna, arrantzaleen problema litzateke eta azken uraldeak egin dituen kalteak ikertzea izan ziren. Herriak oso serioски hartu zituen han esandakoak eta batzutan, Ajuriagerrak diputatu eta senadoreei zerbait galdetzean, herriko bozak erantzuten zion. Herriko batek "Hau da benetazko demokrazia!" garrasi egin zien Asanbladakoei.



Gauza harrigarri batzu ere gertatu ziren lehen Asanblada honen barruan. Hauen artean Bizkaiko UCDeko ordezkari batek esandakoak ditugu. Dakizuenez, Nafarroako UCDekoak Gernikara ez ziren etorri, Nafarroak bere "nortasun berezia" eta "zin-eliza" berezia omen duela esanez, hots, Santa María la Real eliza. Argi dago Nafarroako UCDekoak beste euskal lurraldeekin harremanik ez dutela nahi. Baina, Bizkaiko UCDekoa den Juan Echevarria diputatuak esan zuenez, "Euskadik politik indar berezi bat behar du eta indar honen egontoki berezia Euskal Herriko edozein lekutan egon liteke, hots, Iruinean". Nafarroako UCDek Nafarroa Euskaditik aparte ikusten duten artean, Bizkaikoek Nafarroa Euskadi barruan onhartzeko dute... Zer izan zen Gernikan Echevarria jaunak esandakoa? Oportunismoa? UCDe barruan laster ikusiko den zatitasun puntu bat?

Nafarroa, hala ere, Gernikan egon zen, Irujo, Uralburu eta García jaunén bidez. PSOEko Uralburu eta García diputatuak esan zigitenez, beraik ez daude Nafarroako UCDekoekin ados: "Nafarroak, egia da, berezitasunak ditu eta honengatik antolakunde bereziak behar ditu, baina une berean Nafarroa Euskal Herria da eta Euskal Herriarekin batean aukeratutako antolakundeak osatu behar ditu. Nafarroako UCDek, berriz, zentralismoak beti Nafarroan indartu duen zatikeria besterik bultzatu nahi du".

Gernikako Asanblada amaitzerakoan, Haritzaren babesean, han bildutakoek egindako agiri bat irakurria izan zen. Gutun hau Gobernura eta Erregeari bidaltzeko egina izan zen eta bertan lehen aipatu ditugun helburu edo puntuak bilduak izan ziren.

Gernikan goizean egon ondoren, Parlamentariak Iparraldera joan ziren eta han Leizaola lehendakariarekin bilera bat izan zuten.

X. A.

hauteskundeen ondotik

Ekainaren 15ean alderdiekin Donostiako Ibermatikan.

Alderdiak eta herri autoorganizazioa

Lehenik aipatu behar dut Ibermatikakoek alderdientzat eta bai prentsakoentzat prestatu zuten antolaketa egokia, konputagailu azkarrak, margodun telebistak eta zerbitzakuntza guztia, urrutizkin eta taberna antolatzaileen kontu. Euskal prentsarentzat ohiezkoa, gidariak ere euskaraz mintzatzen baitzizaizkigun.

Ibermatikako konputagailuek zehatz-mehatz agertzen zizkiguten Gipuzkoako herrietatik iritsi bezain laster bozen berriak eta neurketak.

Goizeko ordubataz gero, berehala hasi zen hauteskundeetako bozen neurrian finkatzen. E.A.J.ek hartzen du aurrea, eta poliki poliki PSOE ondo ondotik jarraitzen zaio. (o/o 30,6; o/o 27,8) geratzen da azkenik.

Euskadiko Ezkerra, berriz, hirugarrenik agertzen da bozketen lehiaketa honetan. Hain berandu eta hain deseginik jota ere, indartsu atera da, eta dudarik ez aurrerakoan P.N.V.k eta PSOEek ezingo dutela funtsezko politikarik egin indar iraultzaile honekin kontatzeko.

Halere, hauteskondeei garrantzia eman dieten aldetik zenbait alderdi eta elkargorentzat egur eta garbiketa gisa gertatu da. Adibidez, ezker estatualistak (FUTek o/o 1,1 eta AETGk o/o 0,7) eta abertzale sozialistek (ESB eta A.N.V) ere ez dute zizeilurik atera. ESEIk fronte autonomikoari esker atera du senatore Monreal jauna. P.C. guztiz makurtuta geratu bada, PSOE izan da Euskadin garaile. Enrique Mugica, gau osoan harantz-honantz ibili zen PSOEren garaipenak kontabilizatzen. Baten batek alkateen "retoa" gogoratu zionean, hau da, "diputatuek gorreetan parterik ez hartzea, exilatuak etxeratu arte. e.a.", hatz bidez ezarritako alkateek ez dutela kontatzen zioen, herriaren bozketak baizik. Bestalde, autonomi estatutua gauza segurutzat jo zuen eta PSOEek mintzaira berbera erabiltzen omen du Espainia osoan barrena, bai Euskadin, bai Madrilen eta bai Galizian... Herriaren autodeterminazioa garbiki planteatuz.

Bestalde, garrantzizkoa eta kontuan hartu beharrezkoa da o/o 28,2 Suarez-en kontradizioz jositako demokrazia promesen salaketa iraultzailea, batik bat, ezker abertzaleon arrakasta delarik.

Ibermatikako pasiloan ESEIko eta beste alderdietako adiskide batzurekin mintzatzean hauteskunde bozketa honi erabateko garrantzia ematen zioten. Noski, hemendik aurrera bozketako zehatz hau kontuan hartu beharko ditugu eta ezker abertzaleon politik jokoan birplanteiatu beharko da, baina ezin ahanztizkoa da azken urte hauetan Euskal Herrian, alderdien kontrolpetik aski ibilia den herriaren autoorganizazioa, hori baita herrigintzarako oinharria, eta hauzo, herri eta ola asanbladetan lortu dugun mugimendua eta autoorganizazioa ez dugu erreformist edo parlamentarist alderdien eskuetan utziko, alderantziz baizik, alderdiek benetako zentzurik badute, herriaren autoorganizazioa hartu behar lukete oinharri bezala eta autoorganizazio hori osatu Euskal Herriak agertu duen herri mugimendu eta burrukari (gauza badira) politik zuzenbidea eman. Hau izanen baita herri demokraziaren garrantzia bakarra, eta herriaren bozak kontuan hartu behar badira ere, alderdiak ez dira inor (PNV eta PSOE ere ez) gure Herriak daraman herri mugimendu eta dinamika berezia frenatu eta beren gisara kontrolatzeko.

KAS bera azken bolada honetan nahiko hautsia geratu da, eta beraz, dagoeneko, ez da (Ez eta ezker abertzaleoi ere) politik zuzenbide bat emateko gauza. Bestalde, ezker abertzaleok bateratzeko Konbergentziak eragin handia emango duelakoan gaude, eta abertzale sozialista guztiak koordinatzeko ere tresna baliagarria izan daiteke.

PSOE eta PNVk udalen dimisioa eskatu dute, bai, baina udal hauteskundeak eratu arte alderdiek (soilki) osatuko lituzketen jectora munizipalak proposatzen dituzte bitartean. Planteiamendu hori herrigintza jator batetik at planteiatu da, jectora horik, batik bat, herrigintzan ari diren hauzo elkarte, kultur talde, eta abarren ordezkariak eratu behar baillituzkete, bestela, betikoan geundeke, halebria, alderdi boteretsu batzu herriaren autoorganizazioa eta mugimendua frenatzen edo kontrolatu nahirik behintzat. Herriaren autoorganizazioa, behetik gora eta herri asanbladak dira eta izanen dira benetako demokraziaren oinharri eta garrantzia bakarra. Hortik kanpoko gehienez ere demokrazia burjesa izanen da, hau da, alderdi boteretsu eta dirudunen kontrolpeko sasidekrazia.

ALEX.



euskal preso baten bakartate urruna

EUSKAL PRESO BATEN BAKARTATE URRUNA

"Burgosen egon ondoren, Martuteneko gartzelara etortzea etxera bihurtzea bezala izan zen niretzat". Horrela zioen nire lehengusu batek, hiru urtez gartzelatuta egon ondoren, orain direla egun batzu etxera itzultzean. Gartzela bakoitzak bere giro berezia du. Giro hau presoek, beren familiek; janariz betetako paketeek eta herri burrukaren hurbiltasunak egiten dute.

Orain direla egun batzu, Ekainaren 7an, Euskal Herritik urrun, euskaldun bat épaitua izan zen. Zazpi hilabete atzerantz, Oskar González donostiar ikaslea Valenciennes-en atxilotua izan zen, bi flamar lagunekin batean kotxez harma batzu Belgikatik Frantziara pasatzeagatik. Hiru lagunak Valenciennes-eko gartzelara eramana izan ziren eta, hilabete luze hauetan frantziar, "demokratek" egindako garteletako erregimena ondo eta sakonki ezagutu dute.

Epaitze eguna zela eta, Oskarrek erregimen honi buruz zenbait zehaztasun eman zizkion euskal abokatu bati. Valenciennes-eko gartzela berria, txukuna eta dotorea da. Han ez dago, Burgos edo espainiar garteletan bezala, orma handi, ilun eta burdinazko ate handirik. Itxuraz, Valenciennes-eko gartzela frantses harategi bat bezain txukuna da. "Trés propre, très poli". Baina itxuretan gelditzen da atsegintasun guztia. Berez, han presoek egiten duten biziera oso gogorra da. Egunean ordu bakar bat irteten dira barru-patio batetara. Beste hogeitahiruretan beren geletan sartuta egoten dira. Han ez

dago taldeak egiterik, ez eta, ia ia, besteekin hitz egiterik ere. Zentsura, gainera, oso gogorra da. Oskarrek ez ditu gutun gehienak hartzen, eta aldizkariak bidetik "galtzen" dira. Pakete kontuan, berdin: euskal preso honi ez dizkiote eman kanpotik, Euskal Herritik edo Belgikatik bidalitako paketeak. Gartzelan ematen dioten janari kaxkarra bakarrik jaten du. Frantziar, gainera, preso guztiak "arruntak" dira eta ez dago politikoengan berezitasunik. Han egoten da Oskar, bakar bakarrik, hogeitahiru ordu luzeetan, asperturik, nazkaturik, europar demokraziarengan birao gogorak barrutik botatzen. "Euskal Herrian, nitaz gogoratzen diren pertsona eskasak, hemen ondo bizitzen ari naizela usteko dute...". Horrela dio Oskarrek, Lovainan bere Filofofiaren ikasketak amaitu dituen ikasle honek. Bere abokatu ezagun batek esan digunez, Oskar nerbioetatik gero eta okerrago dago.

Geografikoki Valenciennes Euskal Herritik urrun baldin badago —Belgikako muga ondoan baitago— Oskarrek urruntasun hau handiagoa ikusi du zazpi hilabete hauetan. Berak esaten duenez, hemengo amnisti taldeek zeharo ahaztuta izan dute bere izena eta bere egoera. Orain bai. Orain, epaitze egunetan, Euskal Herriko eta atzerriko zenbait jaun eta taldek telegramaz beren bultzakadak eta gorak bidali dizkiote, baina azken orduan eginak izan dira.

Telegrama hauk hartzean, frantziar epaileak hala esan omen zuen: "Telegrama mordoska honek ez du nire erabakiaren zuzentasuna okertuko". Epaileak "harma trafikiko" honen gertaera hutsak bakarrik ikusi nahi izan ditu, nahiz eta Oskarren abokatuak gertatutakoan politik kontextu baten barruan azaldu nahi. Oskarren abokatu frantziarrak bere herriaren sistima legala "liberté" kontzeptu barruan eginda dagoela zioen eta Oskar bere herriaren "liberté", askatasunagatik burrukalaria trebe bat zela agertu zuen epaitze unean. Fiskaleak, bere aldetik, Oskarren kontra bi urtetako gartzela zigorra eskatu zuen, "avec surcis", dirudienez. Honek esan nahi du, bi urte horietatik, egindako zazpi hilabeteak kenduko direla. Atzerritarrei, gainera, zigor erdia betetzean, askotan Frantziatik alde egiteko baimena ematen zaie.

Lerro hauk idazten ari garen uneotan ez dakigu oraindik zenbat urte edo hilabetetako kondena emango dioten Oskarri. Espainiar eta frantziar gobernuen artean dagoen adiskidetasuna ikuririk, zigorra ez dela makala izango uste dugu. Orain europar guztiak "terroristen" kontra daudenez gero, ezkongai samurren elkar maitasuna sentitzen dute eta elkar laguntzeko prest daude, noski. Oskarren abokatu lagunak zera esaten zidan: "Hara nolakoak diren "demokraziaren" gartzelak eta gartzel erregimenak. Eta, dirudienez, egoera hori helburutzat hartu dugu hemengo zenbait abokatu burrukalariorik! Egoera honen akats handiak alde batetara uzten saiatu behar dugu".

X. A.

EUSKAL HERRIAN

HAUTESKUNDEEN INGURUAN

Hauteskundeak joan dira. Orain, botuak kontatzeko garaia, azterketak egiteko sasoia eta jarrerak argitzeko unea heldu zaigu. Honelaxe egingo ez duena, hauteskundeak soilik burjesentzat direla uste izango duena, haitzulo sakon eta hondogabeko atea irekitzen ari da, bere burua eta berarekin batera herri baten esperantza eta askoren nahia deuseztatzen eta bilakatzen ari da. Herriaren esperantza, sistema zapaltzaile honen kontra ari den langileriaren esperantza, desesperatzen ari da.

Egon, guztiok gaude ados, burrukarako motore nagusia hauteskundeetatik kanpoan dagoela esateko, herriak askatasuna lortzen ari dela esateko. Bai, iraultzaile garen guztiok batera gatoz. Esperientziak aldiz, ba diosku burjes demokraziaz probetxurik ateratzen jakin ez duena, ematen ala ukatzen dizkigun beste bide berriez, fruitua biltzen jakin ez duena, bere burua eta, zoritxarrez, batera, herri oso batena, suntzitzera joaten dela. Politik alderdi handi guztien jokoa eta politika maltzurra objektiboki praktikatu. Horrelaxe gertatu da European, honelaxe gertatzen ari da oraintxe ere bertan. Burjes demokraziak nagusitu duen sistemak daukan egituraren arauera, oposizioko sozial-demokrata taldeak ere, ixilpeko egoera apal batetan aurkitzen dira; are guttiago egiazko ezkertiarak, demokraziaren erakusgaiak eta txotxongiloak besterik ez direnak. "Gure hauteskundeetan" nahiz eta beste koaligazioen abantaila handia eta benetan erabateko nekagarria izanik, egun batzutako oportunitate berdinak egon dira guztientzat, bai irratiz eta bai telebistaz. Europako demokrazietan horrelako berdintasunik ez dela jakitean harrituko gara. European alderdi nagusiak, "los partidos de orden" agertzen dira soil-soilik. Holaxe dago Europa. Hemen lehengo hauteskundeak izan direlako beste gauza bat eduki dugu. Ikusiko dugu bigarrenetan. Ikusiko Herriarentzat arrotza zen botere diktadore baten berrogei urteen ondoren, Euskal Herriaren egoera eta Europakoa ez zen berdina. Hemen egin dugun burrukagatik guztiok erradikalizaturik irten gara. Oraintxe zegoen, nortasunaren pisua ateratzeko garaia, burruka guztiak, sisteman onhartzen dizkigun burrukak eta sufritzen ez dizkigunak ere, batzeko sasoia, Euskal Herri batu, autogestionatu, langileek kontralatua ez zela inolako minorien arazoa, frogatzeko sasoia, baizik eta bertako egiazko arazo bat, herri honetako jendea mobilizatzeko gai dena. Hala ere helburu hau oso garbi —nahiz eta ez osoki— frogaturik geratu da. Ezker abertzale sakabanatu batek diputatu bat eta senadore bat ateratzeko gai izan da, beste aukeren artean desabantail haundi izanik, kandidatura

erretiratzea ukanik, leader batzu aurrez ezin presentatuz eta ezker berekoak abstentzioaren alde egonik hau guztiau kontuan harturik, Gipuzkoan bi ateratzen dira, eta Nafarroan eta Bizkaian beste bi ateratzeko egon da.

Bai parte hartzea eta bai abstentzioa defendatuz daitezkeen bi jarrera iruditzen zaizkit, baldin eta moralkeriak talde batera utzita, arazoaren mamiari sartzen bagara. Jende askok uste du faktorerik inportanteena amnistiaren kontua izan dela eta horrela parte hartzeak sistema onhartzea adierazten zuela batera. Azkenengo hau nolabait egia izan da baina abstentzioaren oinharritzko arazoia kanpoan egon da: Ezker alderdi abertzale handi bien akordio ezina izan da arrazoi nagusia. Ezkerreko abertzale baten gorputza osatzeko eta indartzeko betiko ikarak eta beldurrak sakabanatu dituzte ezkerreko alderdi abertzaleak.

Sakabanatze honetatik PNVri mesede handi bat egin diogu lehenik, eta bigarrenik PSOeri. Bizkaian esaterako, E.E.ko kandidaturaren estatutist usaina eta nahaskeriak P.N.V.ri botuak eman dizkio. Eta azken hau egia baino egiagoa da.

Guzti honi o/0 10 abstentzio kontzientziatu gehitu egin behar zaio Bizkaian. Bizkaiko eta Gipuzkoako zenbait herritan abstentzioa ikusgarria izan da. Bizkaian abstentzio honek objektiboki A.P. bat ateratu du. Askok honetaz seriooki pentsatu beharko lukete. Nafarroan ere nahasketa itzela izan da. Abstentzioren kontra zeudenak alde agertu dira gero. Gipuzkoako abstentzioa o/0 28 inguruan egon da. Abstentzio hau eskuarki ez dira KASekoak noski, baina pilo haundi bat behintzat bai.

Abstentzio porzentaiak eta Euskadiko Ezkerreko lortu zituen porzentaiak batuz, Ezker Abertzale sendo bat topatzen dugu, eta askok eta askok batez ere Bizkaian, Euskadiko eskerrari botua eman beharrean PNVri botua eman ziotenak, kandidatura hori garbi ez zegoela eta, kontuan harturik, ezker abertzaleen indarra, ikaragarria dela esan daiteke. Honetaz ere askok seriooki pentsatu beharko lukete.

Beharrezkoa iruditzen zait Euskal-Herriko laherrialdeetan ezker abertzaleen arteko akordio sakon eta serio bat egitea. Eta hemendik aurrera guzti hau ikusita, Bizkaiko kandidatura eta Gipuzkoakoa ere, ondo eta garbi abertzale izan behar dela uste dut, bestela PNVren jokoa egiten ari gara eta egiazko talde minoritarioak puztu eta handitzen ari gara. Hau garbi dago. Udal hauteskundetarako kontuan hartu behar den gauza bat da.

Oraingo honetan autonomi estatuaren barmeko burrukan parte hartzea derrigorrezkoa iruditzen zait. Edonolako estatutoa ez lortzeko behintzat.

"Centro"ren jokaera ikusten ari da, hark ere



parte hartzea nahi du, zeren ongi baitaki parte hartze horrekin benetako gauza txar, anti-euskaldun eta atzerakoia ateratzeko gai dela. Bestaldetik, Nafarroan chantage bat egiten ari da, abertzale indarrak sakabanatzeko.

PNVren joera garbi ere ikusten da. Botuak baka-rrik konserbatzeko, ezker aldera jo behar du, eta beste indar sozial-demokrata abertzaleekin batu behar du, baina azkenengo hau ez du egingo, eta egiten badu, barruan dauzkan atzerakoenak kontra jarriko zaizkio. Beraz, sozial demokratekin koaliga-

zioak egingo ditu, batasunik egin beharrean.

P.C.ren joko eskuindar, espainolista, sozial-demokrata eta chauvinistak beren fruitu guztiak batu ditu. Zer esanik ez dago bere oportunitatea eta batzutan arrazismoa salhatu egin behar dugula.

Gure politika, bestaldez, garbi ikusten da edo behintzat garbi ikusiko beharko zen: Ezker abertzalearen batasuna, seriotasuna eta gogortasuna, Euskal Herriaren alde zerbait egin nahi badugu behintzat.

E. HIRUSTA

GIPUZKOAKO ABSTENTZIO DATUAK

Abaltzisketa	o/o	52,4	Donostia	o/o	29,6	Lizarra	o/o	29,6
Aduna	o/o	15,1	Eibar	o/o	25,4	Motriku	o/o	28,7
Aizarnabal	o/o	21,1	Elgoibar	o/o	26,7	Mutiloa	o/o	28,2
Albistur	o/o	46,00	Eskoriatza	o/o	23,9	Oinati	o/o	26,9
Alegia	o/o	26,4	Elduaian	o/o	29,2	Olaberria	o/o	25,2
Alkitza	o/o	42,00	Errexil	o/o	42,8	Orexa	o/o	47,1
Altso	o/o	39,5	Errenteria	o/o	30,4	Orio	o/o	23,9
Amezketza	o/o	60,00	Ezkioga	o/o	38,00	Ormaiztegi	o/o	21,2
Andoain	o/o	34,41	Gaintza	o/o	51,7	Ordizia	o/o	30,00
Anoeta	o/o	21,8	Gabiria	o/o	21,00	Oiartzun	o/o	32,8
Antzuola	o/o	21,7	Getaria	o/o	15,00	Pasaia	o/o	30,2
Arama	o/o	52,4	Hernani	o/o	28,8	Segura	o/o	25,2
Aretxabaleta	o/o	24,6	Hernialde	o/o	16,7	Tolosa	o/o	32,7
Arrasate	o/o	33,2	Hiruherrietia	o/o	46,2	Urnieta	o/o	27,1
Asteasu	o/o	37,1	Ibarra	o/o	28,7	Usurbil	o/c	29,1
Ataun	o/o	54,2	Idiazabal	o/o	23,2	Urretxua	o/o	23,00
Aia	o/o	33,3	Irun	o/o	32,7	Zaldibia	o/o	57,4
Azkoitia	o/o	20,7	Irura	o/o	36,5	Zarautz	o/o	20,4
Azpeitia	o/o	27,3	Itsasondo	o/o	54,1	Zegama	o/o	32,8
Beasain	o/o	27,50	Larraul	o/o	53,7	Zerain	o/o	34,7
Beizama	o/o	28,00	Lazkano	o/o	30,6	Zestona	o/o	24,2
Belauntza	o/o	32,8	Leaburu G.	o/o	41,8	Zizurkil	o/o	24,7
Berastegi	o/o	30,6	Legazpia	o/o	18,4	Zumarraga	o/o	23,4
Bergara	o/o	31,8	Legorreta	o/o	29,2			
Berrobi	o/o	28,8	Leintz-Gatzaga	o/o	53,9	Gipuzkoa osoa:	29,2	
Bidegoian	o/o	36,8	Lezo	o/o	43,2	Euskadiko Ezkerra:	9,5	
Billabona	o/o	25,7						
Deba	o/o	30,2						

KONTUAN HARTZEKO IRAKASPENAK

Gipuzkoako abstentzio osoa E.E.ren botuak baino hiru aldiz handiagoa izan da. Herria euskaldunago eta bertako abstentzioa handiago.

E.T.A.ri militante gehien eman dizkioten eta herri burruketan gogorrenik parte hartutako herriak, abstentzionistenak izan dira.

Bestaldetik honelako abstentzio bat ez da abstentzio normala izan. Hemen egon den abstentzio kontzientziatuaren datuak jakiteko Gipuzkoan eta Bartzelonan egon direnak konparatu behar dira, biak nolabait, antzekoak izanki.

Beraz Gipuzkoa osoaren abstentzioa (29,2) minus Bartzelonako abstentzio osoa (14,00) eta gutti gora behera Gipuzkoako abstentzio kontzien-

tziatua edukiko dugu: 15,2.

Kontuan hartu behar da, dena dela, Gipuzkoa Bartzelonarekin konparatzea ez dela oso bidezko, gipuzkoarrek aspaididanik egindako kale burruka eta manifestaldiak aski garbi agertzen baitute hor Katalunian baino politik kontzientziapen handiagoa dagoela. Horregatik, noski, abstentzioak, arduragabeta-sunezkoak barik, neurri handiago batez borondatezkoak izan dira, berau frogatzeko modu zehatzik ez badago ere.

Herri batzutako abstentzio porzentaia ikaragarriak dira. Eta hori ez da normala eta ezin daiteke edonola hartu. Hor dugu esaterako Abaltzisketa, Ataun, Amezketza, Gaintza, Larraul, Itsasondo, Gatzaga, eta Zaldibia o/o 50 baino gehiagoko abstentzioaz.

ASKATASUNAREN IBILALDIA

Uztailaren 2.ean "Askatasunaren Ibilaldia" hasiko da, Euskal Herriko lau puntutatik. Bizkaikoa Gernikatik hasiko dira ibiltzen, Lodosan Nafarrak, Agurainen (Salvatierran) Sarabarrak eta Zarautzen giputzak. Puntu hauetan hasitako bideak oso luzeak izango dira. Bide bakoitzak 450 kilometro izango ditu, gutti gora behera, eta bide epea ere oso luzea izango da: lau ibilaldiak Agorrilaren 28an amaituko dira, Iruinean, zailtasun guztiak menperatzen baldin badira, noski. Ez dira oztopotzaile trebeak faltako. "Euskadiko Askatasun Ibilaldia" tripakominak sortuko die hainbat pertsonari. Maok bere denbora onenetan "Ibilaldi Luzea" egin baldin bazuen, txinatarren nortasuna trebetuz; Luther King-ek "Washingtoneranzko Ibilaldia" egitean Estatu Batuetako zapalduen izpirituak indartu baldin bazituen eta Gandhik "Gatzaren Ibilaldia" egiterakoan herri menperatu baten indarrak bultzatu baldin bazituen, Euskal Herri zapaldu batetan egitera goazen ibilaldia ez da nolana hikoia. I haz Kataluniako askatasun ibilaldia kolpeka desegina izan zen. Zer gertatuko zaigu Euskal Herri "demokratiko" honetan?

NOLA EGINGO DEN BIDEA

Ibilaldiak bere aldizkari berezia du: "Euskadi Askatua". Aldizkari honek ibilaldian jazotariko gertakizunen berri emango digu. Bide bakoitzetik aurrera egingo duen ibiltari talde bakoitzak zerbitzu hauk izango ditu: jan-edari zerbitzua, barru-gordetze zerbitzua, berriemate eta turismokoa, mediku-erizainena, su kontrakoa eta garraio zerbitzua.

Lau bideek herrialde asko ukitzen dituzte. Herrialde bakoitzean ibilaldiak idazkaritza bat izango du. Idazkaritza bakoitzak bere herrialde berezian ibilaldiak aurkituko dituen beharrak betetzen saiatu beharko du. Herrialde bakoitzeko ordezkari, noski, beste guztiekin koordinaketa bat bilatu beharko du.

Ordezkarri Orokorrak antolatu beharko dituen zerbitzuak ez dira makalak izango: ostatu zerbitzuan, 1000 lagunentzat izan beharko duen kanpamendu bat herri batetatik bestera eraman eta birjari beharko du, garraio zerbitzuekin koordinaketa on bat izanez. Eguneroko bidea hamar-hamabost kilometrotakoa izango denez gero, hamar-hamabost kilometro guztietan dendak non jarri eta jendea non sartu erabaki beharko du ibilaldiak. Eta, gainera, zer jaten eta zer edaten eman bilatu eta aurkitu beharko du. Zer esanik ez, Ibilaldiak guz-

tion laguntza eskatzen du, lana ez baita txantxetakoia. Erne, ba, irakurle, ibilaldia zure lurraldetara noiz joko duen arretaz!

"Zapuztailerik" faltako ez denez gero, ibilaldikoek beren "zaintzaile" indarrak izango dituzte, "inkontrolatuen" aurrean ibilaldikoak defendatzeko.

NOLA PARTAIDE IZAN

Ibilaldiko lagun bakoitzak ahal eta nahi duen bide epea egin dezake. Batzuk egun batez edo biz egongo dira, asteak edo ibilaldi osoan besteak. Batzuk oinez egingo dute bidea, besteak bizikletaz, motorrez edo autoaz. Ibiltari batzu gazteak eta kementsuak izango ditugu, nagusiak eta gaixoak besteak. Garrantzizkoa ibilaldian izpiritu osoz egotea izango da.

Ibiltari bakoitzak ibiltzeko ekipu berezia eraman beharko du. Gure herrian euriak maiz izaten direnez gero, euritako-oinetako egokiak izan beharko ditu bakoitzak, lokatzaren artean ibiltzeko modukoa. Edateko tresna onena —zahatoa— lagun onenatariko bat izango dugu, ardo onaz beteta egonez gero, batez ere.

ZERTARAKO IBILALDI HAU

Honelako ibilaldiak herrialde demokratikotan oztoporik gabe egin ohi dira. Ibilaldi hau hemen lortutako giroaren "demokratikotasunaren" hotz-beroa neurtzeko antolatua izan da. Honelako ibilaldi batek oin-harrizko giza eskubideen errespetua eskatzen du: elkartzeko eskubidea, jakin-erazteko eskubidea... bizitzeko eskubidea, hitz batez. Euskal Herriko ordezkari batzu Madrilen egongo direnez gero, ibilaldiak ordezkari hauen herri-indarra bihurtu nahi du, ordezkarien eskeen bultzatzailea. Ibilaldi honek, gainera, beste helburu batzu ditu: gure herriaren toki ikusgarrienak, historia etab. erakutsi nahi ditu. Arlo honetan ba dute zer egin herrialde bakoitzeko ordezkarietakoek.

LEHEN OZTOPOAK

Ibilaldia hasi baino lehen, lehen oztopo ofizialak agertu dira. Donostian, auto batetan ibilaldia- ren pankarta bat eta ikurrin bat zeramatela, auto-koak atxilotuak izan dira. Berri-emate arloan, lau probintzietako Informazio Ordezkari ofizialetan agindu batzu hartuak izan dira: agindu hauek ditzenez, irratiek ezingo dute ibilaldiaren berririk eman. Demokratikotasuna pikutara joan da, ibilaldia hasi baino lehen. Hala ere, zori onena opa diogu lerro hauetatik askatasunaren ibilaldi honi.

X. A.



ZAIN DEZAGUN BUSTURIALDEA!

Bizkaiaren bihotzean, Gernikatik itsasora bitartean, ibar ezin ederragoa dago. Itsasadarra, gora eta behera, Gernikako Errenteriaraino heltzen da. Eskualde hau oso ongi kontserbaturik dago, eta bere egoera naturalean dirauela esan daiteke oker handirik gabe.

Bizkaiko leku ederrenetarikoa dela badiot, neke handirik gabe sinetsiko didazuela uste dut, edo, bestela, joan zaitezte Portuondoko behatokia edo Atxerako San Pedrora edo Ereñozarreko San Migelera, eta ikus. Gezur handirik esan ote dut?

Buda, orain, guztionak diren lur horietaz, guztionak diren edertasun natural horietaz probetxatzeko asmoadu entepresa pribatu batek, guztion izan behar lukeen Diputazioaren laguntzaz. Eta horrelakorik ezin dezakegu permiti!. Horrela uste dute (eta dugu) hainbatek eta, horregatik, muntatzen ari diren projektu eta saltsa berdearen (diruarena, noski) aurkako inpugnazioak aurkezten ari dira. Oraindino sasoiz gaude. Ea guztion ekinaz tamaina honetako astakeriarik egiten ez uztea lortzen dugun!

INPUGNAZIOAN AGERI DIREN DATUAK

Gernikatik irten eta itsasoraino dagoen lantegi bakarra Muruetako Untzigintza da. Entepresa honek entepresa berri bat sortu zuen, denbora asko ez dela: Inmobiliaria Murueta S. A. Honek, politikipoliki, inguruetakonekazal lurra erosi ditu; eta hauekin batera itsasadarraren alboko lur industrialen kontzesioa perspektiban duela kontutan hartuz, entepresa horrek 40 Ha. inguru ditu prest, izen aldakuntza bat lortuz, lur horik pribatuki bere aberspiderako erabiltzeko. Esan beharra dago, alde batetik, kontzesioako lur horik publikoak direla, eta bestetik, lur guztiak benetako parke naturala osotzen dutela eta oraindik destruktiboki erabili gabe daudela.

Plangintzá haxe dateke: Lehenik publiko dena pribatu bihurtzea, eta gero, gaur egun ekologierretserba dena industrigune bilakatzea. Aldaketa bikaina, ekologierretserbak soberan ditugun herrialde honetan...

Baina nola burutuko dute beren plangintza hori? Bi sozietate anonimo horikspauso hauk ematen ari dira: Azken urteotan itsadarraren draga egiten dihardute, untzi handiagoren pasabidea prestatzeko. Dragapenetik ateratzen den lurra nonbait pilatu behar da, eta horretarako lur berriak behar dituzte. Horrela, bada, bokale inguruko lur berriak bereganatzeko premia dute. Zer egin?

Arazo hori konpontzeko, irtenbide bitxia aurkitu dute: lur berrien estalpena justifikatzeko, hon-



dartza artifizialen projektu bat aurkeztu dute, bide batez, Diputazioaren laguntza ekonomiko eta administratiboa ere lortzeko. Projektu hau aurreratereaz, negozio bikaina egingen lukete: Hondartza artifizialen truke, 12 milioi lortuko lituzkete, beren dragapena aurrerantz ateratzeko; bestetik, tramiteak Diputazioak egingen lituzke eta erakunde honek bedeinkatu egingen luke projektua. Izan ere, Diputazioak hasi ditu jadanik tramiteak, Busturia eta Sukarrietako barrutian dagoen San Antonioko hondartzaren inguruko lurra eman diezazkioten. Lotsagarria, benetan!

HONDARTZA ARTIFIZIALAK, ZERTARAKO?

Zertarako demontre behar dira hondartza artifizialak Busturialdean, bertan Bizkaiko hondartza naturalik ederrenak badaude? Itsasadar hau bitxi bakarra da euskal kostalde osoan, ez soilik handiena delako, horretaz gainera ongien kontserbaturik dagoena delako baizik.

Zer nahi dute? Industria bidez itsasadar osoa hondatzea? Galindo, Udondo, Gobelak eta beste zenbait lekutan egin diren bezalako industriguneak muntatzea? Egun publiko diren lurrei plusbalia izugarria ateratzea?

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak inpugnatu egin zuen garaiz hondartza artifizialen projektua, inguruko lurraldeetarako ekar zitzakeen kalteak kontutan hartuz. Hala ere, Diputazioak aurrera egin nahi du. Iberduero eta Lemoiz, Busturialdea eta Inmobiliaria Murueta S. A.... behin eta berriro Diputazioa alde berean jartzen da, baina, hala ere, gure Diputazioa dela esateko aurpegia du. Noiz arte?

J. R. Etxebarria

BILBOKO UNIBERTSITATEAN ZIENTZIA EUSKARAZ

ANAITASUNA honetako azken zenbakian, eta "Zientzia Euskaraz? Zergatik ez?" izenburuarekin, Lejoako Zientzi Fakultatean eginiko inkesta baten aipamena egin genuen. Inkesta hartan proiektu gisa aurkeztu genuena, gaur egun errealitate bihurtzeko lehen pausoetan dago, eta ezer oker gertatzen ez bada, ba dirudi datorren urtean errealitate izanen den esperientzia bihurtuko dela: Unibertsitate ofizialan, zenbait gai euskaraz azalduko eta landuko dira. Utopiatzat edukia, ia errealitatea bilakatua. Etorkizun hobea eta euskaldunago baten lehen urratsa izan dadila!

FAKULTATEKO KLAUSTRUAREN BAIMENA

Paperean behintzat, Fakultatearen gestioa gidatzen duen barne erakunderik gorena Klaustrua da; izan ere, Dekanoa Klaustruaren Lehendakari eta Ordezkarria baita, nolabait beraren nahia betetzen eta interpretatzen duena.

Inkestan oinharriturik, Z.E.K.T. taldeak eta Euskal Kultura Zientifikoaren aldeko Batzordeak proiektu argi bat zuten buruan: 1977-78 ikasturtean lehen mailan zenbait asignatura euskaraz burutzea. Horretarako, talde berezi bat atonduko zen euskaldunekin ikastaldiak euskaraz egiteko. Proiektua Klaustruan aurkeztu zen, eta aurkako eritzi gutti-ekin, elkar hizketaren ondoren, onetsia izan zen.

Aurrera, beraz.

PLANGINTZA NOLA DAGOEN

Dena den, hemendik aurrera jo eta ke lotu beharko gataizkio lanari. Azpiegiturako gauza asko falta zaigu: Propaganda egin behar da, COU bukatzen duten euskaldunek euskaraz ikas dezaketela jakin dezaten; zein talde moeta izanen den (Kimika edo Biologia espezialitatetako lehen maila); apunteak prestatzen hasi beharko da, ez baitago maila horretan euskal bibliografiarik ("Natur Zientziak" liburuak eta Elhuyar aldizkariak beren laguntza emanen digute, zer esanik ez); irakasleen arteko koordinaketa prestatu behar da (euskara aldetik, eta zientzia eta programen aldetik); eta abar. Gainera, gauza hau guztiok laster atondu behar dira, matrikulatzen datozenek horrelako talde batetan parte har dezaketela jakin dezaten eta beren izena eman ahal dezaten. Eta abar.

PROZESU ITZULEZINA LORTU BEHAR DUGU

Azaldu egingen dut lehenik eta behin honekin esan nahi dudana.

Bat. Dudarik ere ez dut egiten, egintza honekin aurrera pauso bat egiten ari garela. Etorkizuneko Euskal Unibertsitatea lortu nahi badugu, eta Euskal adjektiboa esanguratsu izan dadin nahi badugu bere euskaltasun horretan ongi finkatua eta sustraitua egon dadin nahi badugu, oinegitura jadanik muntatzen hasi beharko dugu, oraindik hasi beharko dugu euskaltasun hori prestatzen.

Bi. Orain lehen mailan zenbait asignatura ematea lortzen badugu, ez da esperientzia horrekin datorren urtean bukatzeko. Aitzitik, asignatura horietako irakaskuntza ongi finkatu behar dugu. Eta hori finkaturik dagoenean gorago jo ere. Zeren eta euskara ez baita segur biziko, edozertarako eta maila guztietan erabilia ez den artean. Horregatik diot, prozesu hau itzulezina bilakatu behar dugula.

Hiru. Honelako egintzetan hainbat arrisku dagoela inori ezkututzen ez zaion gauza bat da. Azken batez, apostu bat da: gure bihotzak eta buruak egiten dute apostua, gure ahalmenak eta gure etsaiak aurka dituztelarik. Gure ahalmenak, alde batetik, lan horrek esfortzu gogorra eskatzen digulako eta nolabait muga bat jartzen digulako. Eta gure etsaiak, bestetik, gure porrotaz asko pozutuko lirakekeelako. Eta apostu hori irabazi egin behar dugu.

Lau. Mespreziatuak izatetik toleratuak izatera pasatu gara. Ez da nahikoa, ordea. Prestigioa behar du euskarak, nolabait jendearentzat motibagarria izateko. Sintomatikoa da, inkesta batetan proiektuaren aurka agertu zen erantzun hau: "Ez, euskara interesgarria ez delako". Geuk bihurtu behar dugu interesgarri.



PROIEKTUAREN GARRANTZIA

Zertan finkatzen da proiektu honek ukan dezakeen garrantzia? Euskal kulturak duen problema handienetako bat euskaldunon kontzientzia eta militantzia falta da. Analfabetuak gara geure kulturaren eta horrek ez gaitu kezkatzen. Hori tristea. Euskara bigarren mailako guzatzat dugu praktikan eta errealtatean, nahiz eta teorian guztiok daukagun geure hizkuntza nazionaltzat eta abar eta abar. Ipuin guttiago. Maite dena eta desio dena landu egin behar da, eta beste apologia guztiak, sentimentalismo erromantikoak izateaz gainera, mitifikatzera, hiltzera eta momifikatzera daramaten ipuinak dira. Eta momia konturako, Egypton ba da nahiko.

Euskaldunok militante izan behar dugu euskararen arloan; beste erremediorik ez zaigu geratzen. Eta exenpluarekin egiten den militantzia bezalakorik ez dago. Orain arte, euskal unibertsitateek beren ikasketen aitzakiaz, baztertu egiten zuten euskararen lan-tzea, horretarako "ez baitute astirik". Aitzaki hori deuseztu egingen da, proiektua aurrera eramaten bada, bi txoriok tiro berberaz hilen baitira. Horretarako aukera ba da!

Euskal Kulturaren indarrak, biderkatze problema dugu. Jende gutti dagoela, daudenei lan handia tokatzen zaie per capita. Eta ito beharrean egoteaz gainera, zuloak estaltzera ere ez dira heltzen, eta horrela, gure unti simbolikora sartzen den urak gero eta murgiltzenago daroa unti. Langileak biderkatuz, arazoa konponbidean jarriko da.

Unibertsitateak kultur jokoa izan behar badu —denentz ez niri galde—, bertako mugimenduak dinamikatu eta bizkortu egin beharko du kultur bizitza. Irakasleak prestatu beharko ditu biderkatu prozesua areagotzeko. Eta zer bide hoberik, euskal irakasleei bidea garbi uztea baino?.

ZENBAIT ESKARI

Ez dut artikulu hau bukatu nahi, zenbait eskari ireki egin gabe. Eskariok talde eta pertsona desberdinei zuzenduko dizkiet.

Lehenik, informabideen arduradunei, proiektu honen propaganda egin dezaten. Denok dakigu, gaur egunean propagandak eragin handia duela. Horregatik, bistakoa da, proiektu honen alde informabideek lan asko egin dezaketela: aldizkariak, irratiek eta abarrek. Laguntza handia eman dezakete. Hori dela eta, euskal kultura lagundu nahi badute, proiektu honen aldeko ardura eskatzen diet.

Bigarrenik, azken hauteskundeetan hautaturiko deputatu-senatoreei. Hauen egintzak oztopo asko

gainditzera lagun dezake; eta kanpainan esaniko eta prometatutako gauza politen kontuan pasatu behar zaie. Beste askotan bezala, euskara eta euskal kulturaren aldeko hitzak ez daitezela hitz hutsak izan.

Hirugarrenik, COU-ko ikasleei bere laguntza eskatu nahi diet. Hauetariko asko Lejoako Zientzi Fakultatera joanen dira. Hasteko, euskararen beldurrik ez dezatela ukan, eta euskal ikastaldiei buruzko informazioa eska dezatela esanen diet. Hauen parte-hartzea guztiz beharrezkoa da. Irakasleen aldetik erraztasun eta laguntza guztiak izanen dituzte.

Laugarrenik, beste unibertsitate eta fakultateetako euskaldunei. Oraingo proiektu hau fakultate bakar batetan jarriko da martxan. Eta beste fakultateetan zergatik ez da berdin egiten? Horretarako



presioak egin beharko dira, bai ikasle eta bai irakasleen aldetik. Haseran ez da gauza handirik egingen, baina etxeak ere lurpea zulatuz eta oinharriak presatuz behetik gora eraikitzen dira eta hazia izanik ere zuhaitz bihurtzen da. Ea, bada!

HITZATZEA

Luzeegia izan da, beharbada, horrelako gauza simple bati buruz eginiko arrazonamendua. Baina penagarria bada ere, gure eskubidea den zerbait —euskal kultura aitzinatzea— errealtate egiteko, hainbat presio eta burruka egin beharra dugu. Dena den, burrukatuz soilik lortuko dugu.

Gure erantzunkizuna handia da. Guztion parte-hartzearekin egingarria da gure asmoa. Ni neu lan egiteko prest nago. Eta zu?

Ramon Garai

opus-ekoen istiluak



Hementxe duzue Escrivá de Balaguer jauna.

1928. José María Escrivá de Balaguer apezak Opus sortu egin zuen. Urteak igaro dira, Opusek Espainiako dirudunen inguruan sartu da. Bere sozioetan, Francoren politikariak, entrepresa haundien jabeak eta abar ikusi ditugu.

Opusen asmoak, giroa eta bizimodua azaltzeko, beren bizian zentratuko naiz. Jende hau (orain hirurogei mila baino gehiago) izpiritual mailan (ez beste mailatan) bizi oso gogor bat eramaten dute, derrigorrezko norma batzu "konplitzen". Jeneralki, hauk izaten dira: "minutu heroikoa" goizean ohetik ari-nez, nagitasunik gabe, altxatzea; egunero "lan onak" Jaungoikoari eskaintzea ("lan on" hauk beste normak ondo egitea, izaten dira); goizero ur hotzez dutxa ematea, eguerdiko hamabietan, "Angelus" erreztatzen dute; egunero ere meza entzun eta jaunar-

tzea. Elizara Ama Birjina agurtzeru behin baino gehiagotan joaten dira. Ukatzeak edo sakrifizioak eguneko orduetan jarraitzen dira (ez jan hau, giza horri aurpegi ona ipin, ez haserra semearekin... gauean otoitz egin ondoren eguneko lan onak aratzen dituzte, koaderno tiki batetan (edo buruan) examina horren konkludipenak idatzi egiten dituzte. Ohar hauk edozein modutakoak izan daitezke. Halegia: gaur ez naiz joan Ama Birjina agurtzeru bihar birritan joango naiz.

Astean behin aitortu egiten dira; arrosario asko errezzatu egiten dute, ebangelioak ere irakurri behar dituzte eta irakurri ondoren konklusioak ateratu. Lanean ere santifikatzen dira "izerdia eta odola" Jaungoikoari eskaintzen. Beste gauza garrantzi-



Lehengo fotografiako etxean jaio izan zen Escrivá de Balaguer jauna. Geroztik dirudienez, etxea pobreegia zelarik, etxe berri bat egin dute Opus-ekoek beren "sainduaren" neurrian.

tsua arrantza da. Honetarako ez daukate ez lotsarik ez atsedunik, oso astunak izaten dira.

Ikusten duzuenez Opusekoa izateko gauza asko egin behar dira. Pentsatuko duzue zergatik hainbat kristau aberats Opusen sartu diren. Honek, erantzun argi bat dauka: fededun aberatsek arazo bat daukate, Kristok esan zuen aberatsak ez direla joango zerura. Escrivá de Balaguer-ek honela konpondu du: verdaderamente debemos de ser pobres de espíritu no importa la riqueza o pobreza material.

Kredo honekin eta gauzak ttikiak (aipatu ditudan normak) ondo erabiltzen, dena erabakitzen dute.

Oso hospatsuak bihurtu dira, ekintza eta asmo bereziengatik.

Erlíjoari buruz "Concilio Vaticano II" baino atzerago daude. Meza eta otoitzak (ahal izaten dutenean) latinez egiten dute. Emakumeek, ez denek, eramaten dute mezara.

Haiek esaten dute, Lefévrek, Aita Santu ez sartu eta kritikatu arren, oso ados daudela.

6 eta 9. mandamenduak tabu bezala dira. Seixuaren agerpenak oso debekaturik daude. Opuseko etxeetan telebista oso arinez itzaltzen da zerbait arriskutsu agertzen bada. Ene ustez, TVEren programak ikustean, amona zaharrak ere, ez dira lotsatzen.

Senar-emazteek maitea egiten dute, seme-alabak edukitzeko bakar bakarrik. Ogino metodoa ere ezin dute erabili.

Politikan zehar sartu dira, ez da oso zaila, arrantzan bakarrik. Helburua aldatu eta fededun politikariaren inguruan jarri.

Munduan kristau demokraziarekin identifikatzen dira, Espainian ez dira joan kristau demokraziarekin, Alianza Popularekin baizik. (Opuseko jendeari APi botua ematea gomendatu diote) Euskadin APek, OCDeK eta EAJek eraman dituzte botuak.

Gauza asko esan liteke "Opus eta politika"ri buruz baina gertaera salagarri batekin azaltzen da: Escrivá de Balaguer, gizon saindu hori, (Escrivá Saindu egin nahi dute) Pinocheten laguna zen; eta saindu biok "pinochetazo"aren ondoren, hospatze-ko, Txilen elkartu ziren. "Visita de cortesía", esaten zuten.

Orain "Monseñor" ez dago, baina "junta militar"en morroi batzu, Opusen helburuak ondo eramateko utzi ditu.

Opusek Espainiako oligarkian oso ondo sarturik dago. Banku hauetan: Banco Popular, Santander, Banesto, Central, Hispano, Urquijo, Bilbao, Vizcaya eta abar, beren sozioek, lagunek, seme-alabek iker-tzen dituzte.

Irakaskuntzan, Espainiako eskola eta Unibertsitate garestienak eratu dituzte Ikastetxe horietan neska-mutilei, ttikitari, buruak garbitzen dizkiete, era zihur batetara. Berek nahi dituzten asmoak sartzen dizkiete. Ekintza horiek, gehienetan, ikasleen oztopoak dakartzate, baina Opusekoak, arrantza egitean oso nekagarriak direnez ikasleen gorrotoarekin bukatzen dute.

Opusek, emakumea maila ttiki batetara eraiten du. Gudariaren atsedendaldia izan behar du. Honela esaten du "Monseñor"ek liburu batetan: "Ellos no es preciso que sean sabias, basta que sean discretas".

Zirina

FINAL GALDUAZ GOGOETA

Hasteko, futbola asko gustatzen zaidala esan behar dut; bai ikustea eta bai jolastea. Eta azaldu ezin dudan bihozkada dela eta, Atletiak irabaztea nahi izaten dudala. Gehiago oraindik, aldizkarietako kirol berriak irakurtzen oso atsegin dudala, eta horrela nire buruak lasaialdi bikaina hartzen duela. Eta pena handia dela euskaraz horrelako berririk ez irakurtzea. Baina tirala! Ni ez naiz kronista deportiboa; Euskal Herriak horrelako kazetari euskaldunik behar duela esana nuke, hala ere, horrela euskaraz gehiago irakurriko litzatekeelakoan bainago.

Atletiak galdu egin du finala. Gora Atleti! Bietariko batek galdu behar zuen, eta oraingoan Atletiri suertatu zaio. Eta horrek ba du bere garrantzia, zer demontre! Zenbat mozkor ez ote den harrapatu galpena dela eta? Segur ako, irabaztean gehiago harrapatuko ziratekeen. Benoi Aire moralizatzaile hau alde batetara utziz, final honen inguruko giroa komentatuko dut.

LEHIAKIDEEN SINBOLISMOA

Bi lehiakideek sinbolismo berezia zuten beren inguruan eta historian. Batetik Betisa, Andalusiako erregionalismoaren adierazle, Sevillako klase herritarren sinboloa, señoritoen menpekoen taldea.

Bestetik Atletia. Denok dakigu azken urteotan askorentzat —aldeko eta etsaiantzat— Atletiak eduki duen sinbolismoa zein den. Bizkaiko abertzalismoaren irudia izan da lehenik eta behin. Irabazten zuen bakoitzean —eta aurkakoa Madrilaren bazen are gehiago— Bizkaiak eta Euskal Herriak irabazten zuen, eta jai egun bihurtzen zen.

Edozein modutan Atletiaren inguruko abertzalismo hori kritikatu beharra dago. Neurri batetan memeloa dela ez du inork ukatuko; edo izan dela behintzat, kaiku eta txapela eroatean eta agur esatean finkatzen den abertzalismoa memeloa den bezala. Hala ere, azken urteotan bestelako kutsu bat hartzen ari dela esan behar da, eta herritarra izanik, Herriaren kezka eta nahiez kutsatu dela. Zorionak! Eta Donostiako Errealarekin dituen partiduetan, ikurriaren arazoan eta abarretan ikus daitekeenez, gaur egun Euskal Herriaren autonomia eta batasuna sinbolizatzen du sarri. Ez da gutti!

Euskal Herriko jokalariai soilik kontratatzean ados banago ere, ba dakit askorentzat hori beren arrazismo izkutuaren fruitu dela. Horrela, Euskal Herriko erdal aldizkarietan sarri ikusten dugula "lehoiek arraza" ona dutela eta antzerako hitlerkeradak. Dena den, bestalde Herriaren parte hartze aktiboa eta Herriarekiko lotura ere adierazten du honek, eta ni honekin geratzen naiz. Zeren eta bestela nola uler daiteke Cruyff bezalako sakamanteka ekonomiko bat autonomia —hau ekonomikoa ere baita— ordezkatzeko?

ESPAINIAKO ERREGE—ERREGINA—PRINTZE— LEHENDAKARI ETA ABARREK IRENTSITAKO TTUA

Madril. Ekainaren 25eko arratseko baderatziak Giroa bero. Bihotzak gori. Espainiako erregea sartzen da Madrileko lur publikoetan, Marizanares hibaiondoan, pribatuki eta Udal publikoaren baimenarekin eraikitako estadioan. Espainiako himnoa gora-behera, inor ere ez da ia konturatzen sartu denik, eta beraren maiestatean erreparatu gabe, koro herritarrak bere errezitalari eusten dio. Ez duzu ikurrik nahi? Bada, hor duzu ikurrina. Bat, bi, hiru,....mila.



Hura zen manifestaldia. Inor ez zen kezkatu legalenentz galdetzeaz. Zertarako? Legaltasuna soberan emana zegoen, Herriaren bihotzean. A. Eta "botaketarik" ez zen falta izan. Ez dirudi inork faxista deitua izan nahi duenik, eta, badaezpada, denak botatzen eta errebotatzen. Denak izan ote ziren? Ez ote



zen izan espektakulurik eman nahi ezean, ttua iren-
tsiz eserita eta ongi eserita iraun behar zuenik. Ai!
Hori egiak esateko modu doterea! Espainiako idaz-
le batez —Quevedoz prezeski— esaten zena datorkit
burura. Erreginari errena zela publikoki baietz esan,
postura bat egin omen zuen. Krabelin eta arrosa bat
ekarri omen zion eta honelako bertso honetaz min-
tzatu omen zitzaion.

“Entre el clavel y la rosa
su Majestad escoja”

Baina egia esan! Diplomatikoki eta baselinaz,
noski. Baina esan. Ai “alibote-alibote”!

BESTE ZENBAIT GORABEHERA

Aldizkari batzu poztu egin dira bilbotarrek
egun hauetan gastatu duketen dirua aipatzean. Eta
kontuak ateratzean zifra astronomikoak sortzen

direla aitortu behar. Jendearen eskapismo hutserako
balio izan ez duten neurrian pena ematen digute;
baina horretaz gainera merezi ukan duten gauza asko
ere izan dira: ala ez?

Gure etsaiek ere jabeturik daude Atletiren sin-
bolismoaz. Edo bestela zertara datoz, eskuin mutu-
rrekoek idatzitako “En Madrid os esperamos” eta
antzerako pintadak. Edo eta auto askori egin dieten
gurpil apurketa. Edo eta Burgosen gertatu diren
atentatuak. Edo eta ikurrinak eramateagatik entzun
diren intsultuak. Edo eta... Hauk guztiok anekdota
hutsak dira ordea.

Galdu egin du Atletiak. Baina Madrilen hainbat
euskaldunek biziriko orduak hor daude. Eta ez dute
preziorik. Garaileen esloganetik harturik, diogun guk
ere: “Gora Atleti, galdu arren!” “Gora Atleti herri-
tarra”

J.R. Bilbao.

Batzuk bizitza askatasunaren adierazpen garbiena izan behar
dela uste dute eta horregatik beren ametsak gaztetasunaz egiten.

Gazte izatea, baina, ez da urteen arauera neurtzen.

Beste gauza asko ere ba dira: batzu esanguratsuak,
beste zenbait iraunkorrak... eta guzti garrantzizkoak.

Moda, esaterako.

olañeta

neskentzako moda

Correo, 12



baserria krisisean

Era askotako arrazoiengatik, gaur autonomist ideiak bultzada berria hartzen ari diren mementu honetan, nahiz eta lehen primantza beren alde politikoetan izan, ezin genezake, euskal lurraldeen planifikapen ekonomikoarekin zerikusirik duen guztia kontutan hartzeko epe laburrean inposatuko den beharra ahantz.

Kontextu honetan, gure Herriko ekonomian gutien eztertu den sektorea aipatzea interesgarri dakusagu, eta honi dedikatzen dizkiogu lerro hauk. Esan beharrezko da, infrastrukturak, industria, urbanismoa aztertzeke estudio ugari egin direla saskontasun handiago edo ttikiagoarekin eginikoak, bai eta azken egunotan duen gaurkotasunagatik arrantza sektoreak kezkatzen hasi duela. Alderantziz, euskal nekazal munduari ez zaio apenas aditasunik eman, eta hau ez da sektorearen marginatze egoeraren adibidea baino. Gutietariko salbuespen bat bezala, aipagarria dugu nekazaritzan espezializatutako Miren Etxezarreta ekonomistak egin duen lana, "El Caserío Vasco" tituluko eta "CANDIDO DE ITURRIAGA Y MARIA DE DAÑOBEITIA" Fundazioak finantziaturikoa.

Hamar urte honetan gure gizartea karakterizatu duen eraldakuntza prozesu burtzoragarriak garrantzi berezia du euskal nekazaritzan. Orain men-

de bat dela iraultza teknologikoak industri mundua eraldatu bazuen —labe garaiei aurrean, burdina lortzeko metodo berrien aurrean, Euskal Herrian hain zabaldurik zeuden burdinola tradizionalak desegin ziren— azken 15 edo 20 urteotan Herriko nekazaritzan antzerako fenomeno bat igartzen da: produkzio teknika berriak eta kapitalist produkzio erak, baserri tradizionalarekin konkurrentzian sartzen dira, honen krisisa sortereziz.

Lehenagoko lerroetan aipaturiko prozesua mendebaldeko mundu desarroilatutako nekazaritza guztien antzerako izan da, eta da. Beraz, gure Herrian nekazaritzak dituen berezitasunak aztertzea interesatzen zaigu, konketuagoki Bizkaia eta Gipuzkoan, lurralde bi honetan baitatza baserria produkzio era nagusi bezala.

Krisisean dagoen euskal baserrian ikusten den lehen desberdintasun handia hau da: nekazal lurralde gehienetan, nekazaritza tradizional eraldatzeak dakarren exodoak, esplotazio handiagoak sorgu ditubai eta mekanizaziorako eta teknika berrien aplikapenerako gai egin; hau ez da Euskadin sortu. Gure herrian baserritar bat egoera kritiko batetan bere lurren esplotazioa uztera bultzatua aurkitzen bada ere, ez dizkio bere lurak beste baserritar bati saltzen, honek lur gehiagorekin esplotazioa arraziona-



lizatu eta errenta handiagoak lortzeko. Honela egoera berrien aurrean baserriak eboluzionatu ezinean, krisisa zenbat eta dramatikoagoa izatera doa.

Gure nekazal eraldatzearen beste alderdi berezia —hau da, exodoak libre utzitako lurrak, eta beste esplotazioengatik hartu ez direnak, pinadiz betetzen ari direla— ez da gure fenomenoa bakarrik. Frantzia, Vosgoetan, antzerako zerbait sortu da. Ez da inorentzat ezezaguna Euskal Herriko mazela kantabrikoak duen pinadi gorakada; hori bai gutik jakinen dute Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde erdia —hiriak eta industri aldeak kontuan harturik ere— pinuz okupaturik aurkitzen direla, beraz bi probintzia hauek munduko oihan "exotiko" (Herrietik kanpoko moietaz birpoblaturikoak) lehen edo bigarrena osatzen dute.

Baina hau denau nabari bada ere, zein da fenomeno hauen arrazoa, posible bada soluziobide egokiak arbitratzeko? Beste herrietako, espainiar Estatukoak barne, kausa komunak alde batetara utzi-ko ditugu hemen. Euskadin, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoan, bereziak direnak aipatzeko.

Gure eritzian, bi probintzien nekazal eraldatzearen berezitasuna Euskal nekazaritzak duen kontextu urbano-industrialean oinarritzen da. Euskal Herriko mazela kantabrikoak, fabrika eta etxegintzarako baliozko diren lur lau nahikorekin kontatzen ez duela denontzat ezaguna da, kondizio hauetan gure herriak izan duen industri hazkunde ikaragarriak toki askotan zolu existentziekin amaitu du, eta oraindik bukatu ez duen tokietan planifikakuntza urbanoak erresidentzial edo industrial bezala kalifikatu ditu. Guzti honek espektatiba eta espekulazio prozesu bat sortu du, beraz nekazal esplotazioak emango zuen errentabilitate hipotetikoak, beste erabiltzetarako lurrak pagatzen diren prezio azpitik geratzen dira, merkatuan erabiltzen diren prezio azpitik. Honela esplikatzen da geratzen diren baserriarrek beren esplotazioak handitzeko lur abandonatuak ez erostea ezin baitituzte lurraren egungo prezioak ordaindu.

Guzti honez gainera, eta alokatzea? galdetuko dute askok. Ez litzakete irabazigarriagoa pinuen errentabilitatea gaingituko zuen errenta bat lurrak kobratzea? Erantzuna ulerterraza da: horrela izan (guk behintzat dudan jartzen dugu), problema handiena nahiz nekazal errentapena legegintzan datza, beste denboretan errentadoreei segurtasuna emateko sortua izanenez, lurrak alokatzea praktikan jabearentzat lokera gogorra izatean —indemnizazio handi baten bitartez ez ezik ezin ditu bere lurrak berreskuratu errentadoreak alde egitea— nahiago izaten du eremutan eduki horrela hipoteka baino, gehiago gainera pinuarekin irabazi zerbait, txikia izan arren, ateratzeko posibilitatean.

Nahiz eta esandakoa hiri inguruko lur lauentzat urbanistikoki industrial edo erresidentzial kalifikatuentzat edo birkalifikatzeko gai direnentzat egia izan, zer gertatzen da beste lurraldeekin? galdetuko du norbaitek. Hemen ere erantzuna hain nabaria ez izan arren berdina da, marginal lur lauak ere arinago edo beranduago urbanizatuko dira eta, ez da ahantzi behar, baserriarri normalki berdina zaiola itxarotzea. Lur menditsuei dagokienez oso eztabaidagarri da berau eta pinadia baino erabiltze errentableagorik izatea behintzat epe laburrerako eta bakoitzaren errentabilitate aldetik eta hau da gaur egun gure sistema ekonomikoan garrantzitsuena denok dakigunez— gainera kasu askotan urbanizatzea ere posible da ez lautadetan bezala intentsiboki, baina extentsinboki, hor dugu bestela, gure mendietan txalet zabaltze hasberria, dudagabe aurrerantzean eta bizi-modua gorantz joatean fenomeno hau desarroilatzera doa, batez ere hirietako kutsaduraren ondoan egoera sano eta lasaiak gehiago baloratzean.

Azken batetan esandako guztia laur lerrotan labur dezakegu, baserriaren problema hau da: lurraren prezioa oso handia da nekazaritzarako erabiltzeko. Guzti honek hemen aipatzen diren baino eztabaida eta ñabartze askoz gehiago uzten ditu, toki problemagatik ez zaigu posible hau denau aztertzea gure nahia hori bazen ere.

Azkenez, bukatzeko, gainera izanarren ezin dugu, soluzio batzu eta Euskadiko etorkizun autonomikoarentzat gure nekazaritzaren eboluzio posibleak izango dituen inplikazioak, aipatu baino.

Lehenengo puntuari dagokionez, ebazpideak, seinalatu, dira bai asko entseiatu ere: produkzio kooperatibak, berotegiak, abeltzantza intentsiboak, etabar.

Bakoitzaren abantail edo eragozpenak zeintzu diren aztertzerantz sartu gabe, esan dezakeguna da: bat ere ez dela jeneneraliza litekeen soluzioa, gure nekazaritzari irteera eman diezaiokeena. Hurrengo artikuluetan hemen aipaturiko eginkizun batzu aztertzea sartuko gara beraren analisis sakonagoak eginez.

Gure baserrien gaurko egoeratik eta —zergatik ez esan— duen etorkizun ilunetik deribatzen diren ondorioei dagokienez.

Artikulu honen luzerak ez digu detailtan sartzetik permititzen eta beste baterako lagatu dugu. Baina ondorio hau ekonomia hutsa dena gaingitzen dutela seinalatu nahi dugu zeren eta gizarte osoarentzat ekologi, paisai, aisi sozietate etabar aldetik garrantzizko ondorioak dira; ahaztu gabe alde printzipala: baserriarrek sufritzen duen marginatu sozialaren egoera.

EKONOMIA

INFLAZIOA

INFLAZIOA

KONTZEPTUA ETA KAUSAK.—

Inflazioa prezio gorapen prozesu iraunkorra da, jadaniko prezioen arauera dagoen eskaera osoa hornitzea eragozten duen ekonomi perturbapenen batek bulkatuta, sozial talde ezberdinen eragipenek barraiatu eta azeleratua.

Definizio honek, sarrera gisa, jarraiko galdekizunak planteiatzen ditu.

A) Zeintzu prezio hartu behar dira gogotan? Agian arrazonagarriena dateke, bizikostuaren indizeari zuzenki eragiten diotenak kontsideratzea, inflazioaren errepikusiorik dramatikoa langile klasearen erdiespen gaitasunari jaurtikitzen baitzaio.

B) Zergatik ezin mantena daiteke jadaniko prezioenganako eskaera osoaren hornidura? Zenbait kausak prozesua sor dezake:

1) Zerbitzu-ondasunen erabateko eskaera, zeinak ekonomiaren ekoiz-ahalbideak gainditzen baititu, halako moldez eskasia orokorra sortzen baita, zeinak eskaera-eskaintza mekanismoaren bidez, prezioen gorapena bulkatzen baitu. Hauxe da ESKAERAREN INFLAZIOA izendatuaren zuzenbidepen teorikoa.

2) Langile klaseen hertsadurak, zeinek produktibitate gehipenak baino alokairu gorapen haun-

diagoi bide ematen baitiete edo irabazkin marginak gehitzea lor dezaketen entresa politikak. Ohartzekoa da, langile klaseak, eta edo entresariak direnaz, kostu eta prezio gorapenak eragiten dituztenak, eta beronek talde biek botere monopolistikoak eduki ditzaten galdatzen du; lehenek lan merkatuan, bigarrenek zerbitzu-ondasunen merkatuan.

Motibapen molde hau, KOSTU INFLAZIOA eragiten dutenak dira. Kostuen gorapenak eragiten du, alde batetik ekoizpenaren gutipen orokorra, ondorengo lan-gelditzearen agerpena eta prezio gorapenaz, lan-gelditzearekiko inflazioaren fenomeno gertatuz, eta egoera hau ezin zezaketen azal 50etako hamarrurteko teorikariek. Baldintza hauetan, gobernu agintaritzak erabateko enpleguaren maila erreperatu nahi badu, eta honetarako gastu publikoa gehitu, lan-gelditzearen baztertzea lortuko da, baina prezio gorapena azeleratzearen gain. Egiturazko zuzenketarik ezean, ekonomiari "inflazioa edo lan-gelditzea" dilema izugarria planteiatzen zaio kasu honetan.

Kostu inflazioaren teoriako azalpena nabardura politikozko sustraiak ditu. Izan ere, entresariak inflazioaren errua langileei egozten dieten bitartean, berauen gehiegizko alokairu eskabideengatik, berauek entresa sektoreari egozten diote, irabazkin marginak gehitzen lehiatzen delarik.

Inflazio prozesuan maizenik aztertu kausa guztiak nahasi ohi dira eta egiazki zail gertatzen da prozesuaren erro autentikoa arakatzeko.

Nabarrendu behar da, diru mugituaren kopuruaren gehipenik gabe inflazio prozesu baten iraupena ezina dela eta prezioen gorapen etengabeek, den diruaren erdiespen gaitasuna gutienera jo eraziko zutela eta inflaziozko tirandurak bazter eraziko zituztela.

3) Teorikari askorentzat, inflazioa zuzenbidetzen duten kausak herrialde bakoitzaren sistema sozio-ekonomikoaren EGITURA-

REN ondorio dira. Espainiar Estatuaren kasuari ikuspegi hau egokituz, inflazioaren egiturazko sustraiak funtsean dira kanpoko merkatalgoaren funtzionamendu kaxkarra, hazkurriak sortzeko gaitasun ttikia, nekazal sektorea oso gaizki egituratuta baitago, fiskal sistema zuzengabe eta atzerakoia (funtsean prezioen gainera artezki erortzen diren zeharkako zergetan oinharrituta), gehiegizko gastu publikoa produktibitate guttitako egintzetan enplegatua gehien bat, eta merkatu sistema usteldua eta estatu "babespen" antisozial eta oligarkikoaz ohitua.

C) Zeintzu eragintza dituzte sozial talde desberdinek prozesuan? Beren eragintza pasiboa izan daiteke, inflazioak sortutako modifikapenen arauera, gastu plangintza aldatzen dutelarik, edo arruntkiro gertatzen denez, ageriboa, beren diru sartzapenen laburpenak onhartzeari uko eginez (langileek alokairu gorapenak ezartzen dituztelarik, entresariak irabazkin marginak jasotzen dituztelarik, Gobernuak zergak goratzen dituztelarik, eta abar.).

ORAINGO KAUSAK

Honako azterketa hau osorik ez litzateke geratuko oraingo egoera arakatu gabe, mendebaldeko Europako herrialderen batzutan o/o 20-25 tarteko prezio gorapen eskergek karakterizatua, ekonomi hildurazko inflazioek ("stagflation") edo eta hazera negatibozko inflazioek ("slumpflation").

Oraingo egoera sortzen duten kausak funtsean hauek dira:

—Lehengaien nazioarteko garestitzea, industri herrialdeen eskaera hazkorrek motibatua eta dibisa merkatuen aldakortasunak eta prezio gorapenaren espektatibetatik sortutako eskaera espektatiboez azeleratua.

—Azken urteotako nazioarteko likidezaren gehipen itzela, Europarentzat iparramerikar Paktamendu Balantzaren ahultasunak erakartzen duen dolar jariora eta, batez ere 1970garrenez gero, Jiro Eskubide Berezien emisioaren

zabalkuntza, direla bide. Nazioarteko likideza urteko o/o30 guti gorabehera gehituz joan dela bai ezta daiteke.

-1971garrenez gero, O.C.D.E.-ko herrialdeek segitzen duten eskaera osoaren politika zabalkorrak, Nixonen Administralgoak hartutako neurri laburgarriek kausatu zuten langabezia baztertzera zuzenduta. Holako politikak, zenbait salbuespenez, doi-doi langelditzea baztertu zuten eta gaur egun nabariki bizkortuta dirauten prezio gorapenak soil-soilki lortu zituzten.

-Petrolioaren krisialdia oraingo egoeraren eragilerik garrantzitsuena izan da, agian. Alde batek, gordinen prezioaren gorapena ez zaie bihurtzen segurtasun gehiago eskaintzen duten herrialde guztiei eta gutiagorik ere, beren Pakamendu Balantzetan zailtasun gehiago dutenei, hain zuzen.

-Gaur egun herrialderik gehienak egonkortasuna garrantzitsuen kontsideratzen hasiak dira eta nazioarteko merkatalgoa eta ekonomia-erantzak neurri kontraktiboak hartzen dituzte.

-Ekonomi, sozial eta politikazko espektatiba ilunek inbestipen pribatua gutitu dute (Espainiar Estatuan batez ere) maila ttipienetara, eta beronek egoera depresiboa azeleratzen du, prezio sistema batekin gorapen iraunkorrean.

INFLAZIOAREN ONDORIOAK.

Garrantzizkoenak hauek dira:

A)Diruaren erdiespen gaitasuna gutitzea. Gogotan hartzen badugu, inflazio tasak 1972garrenean o/o7, 1973garrenean o/o14, eta 1974garrenean o/o18 izan zirela, 1971garrenean 100 pezetatako kostua zuén ondasun bilduma batek, 1974garrenean 144 pezetatako kostua zuen. Hau da, 1974garreneko pezeta batek 1971 garreneko 0,7pezetatako ordaina du edo 1974garreneko "per cápita" errendako 126,940 pezetek 1971garreneko 88,858 pezetetako ordaina dute soilki.

Oraingo inflazio tasek (o/o 24 Espainia-erantzak 1.976garrene-

an) langile klaseei eragiten diete, beren alokairuen erdiespen gaitasuna mantentzeko beren xedean. Ekonomi egoera kritikoa bada, oraindik orain gertatzen denez, entrepresa-langileen arteko tirandurak sortzen dira, zeinek desoreka sozio-politiko gogorretara jotzen baitute.

B) Errenda finkatuen hartzaileak-klase pasiboak batez ere eta langile koalifikatu gabeak kaltegarriak eta inflazioaren kostua jasaten dutenak dira.

Gobernu neurrien azken bilduman ebazitako alokairu geldipena artezki zuzenduta dago, langile klaseak, oro har, krisialdi politikoa jasan dezan, zein eta, gero eta gero, 1.976garreneko inflazio gogorraren kausatzaile baita, bai eta 1.977garrenerako somatzen den inflazio izugarriarena ere.

C) Inflazioak-bizkorra bada, batik bat-aurreztapena eror erazten du eta entrepresari ttikia eta erdikoa funtsik gabe uzten ditu, zeinek kinka larri honetan kredituak beharren baitituzte (berau Euskadirentzat trantzendentala da, bere egitura produktiboa industria moeta hauetan finkatua baita).

D) Oinbarrizko elementuen espekulatzea kitzikatzen du (lurra, bizitokia, elikadura, eta abar); behemilakoei kalte eginez eta zenbait kapitalist egitura faboratuz.

E) Espainiar inflazio tasa atzerriko batez-bestekoa baino haundiagoa denez gero, uste izatekoa da, Pakamendu Balantzaren krisialdia nabarmenagotuko dela. Eta-espero denez-Gobernua debaluazioari atxekitzen bazaio, inflazioa bizkortuko da, kapitale itzurpena kitzikatuko da eta egitura sozio-politikoak gehiago desorekatuko dira.

INFLAZIOAREN KONTRAKO NEURRIAK

Inflazioa "eskaera hutsarena" balitz, eskaera osoa balaztatea aski litzateke gastu publikoaren gutipenaren bidez, zerga artezak gehituz, kreditua balazta-

tuz, diru mugituaren kopurua gutituz, eta abar. "Kostu inflazio hutsa" izatekotan, prezio-alokairuen kontrole bortitzak eta neurri antimonopolistikoak ezarriko lirateke. Larri-larriena da inflazio moeta biok oso gutitan hutsik agertzen direla eta beraz, inflazioaren kontrako neurriak ardura handiz hartu behar dira, nahi direnen kontrako ondorioak sortzaketelako.

Egiturazko zuzenketak dira inflazioa erasotzeko eginkor direnak, baina holako konponbideok aldakuntza politikoa, ekonomikoa eta sozial bortitzak beharrezko dituzte.

Espainiar Estatuari doakioenez, epe laburretan premia-ziok lirateke:

- Prezio-alokairuen geldipena.

- Fiskal sistimaren erreforma-pena, zuzenbide distributibo handiago batetara zuzendua.

- Gobernu gastuen gutipena eta birregiturapena.

- Diru eskaintza balaztatea eta kredituaren kontrolea, hala nola entrepresa ttiki eta erdikoaren babespen haundiagoa.

- Kapitale handiak galdatzen dituzten inbestipenak ahalik gehien hastantzea (zentrale nuklearrak, petrokimikoak, eta abar.).

- Nekazal sektorea kitzikatzea eta babestea, hanbat lehen-gai eta hazkurrien hornidura faboratzeko, nola haragi, labore, pentsu, eta abarren inportazioa hastantzeko.

- Eginahalak egitea lan-esku gehiago behar-beharrezko duten eta energia aurreztatzen dute aktibitateetara baliabide produktiboak xedatzeko, honela lan-gelditzea gutituz eta Pakamendu Balantza hobetuz.

Inflazioa sistema kapitalistaren funtzionamenduaren logikaren ondorio da, fenomeno soziala klase burrukaren adierazgarri da eta bere bazterpenak egitura kapitalistak suntsitzea beharrezko du. Baina honetaz guztionetaz, jarraiko saioan mintzatuko gara.

Haran



CHARTRE DE BREST

"Askapen nazionalaren aldeko burruka ez da sozialismoaren aldeko burrukaz desberdinak. Ezin daiteke esan, ezta, emantzipazio nazionalaren aldeko burruka emantzipazio sozialaren aldeko burrukari lotua dagoenik ere: burruka bat berarek dira."

Bresteko Deklarapena

Alderdi guztiek edukitzen dituzte internazional mailako erlazio batzuen haien ideologia eta praktikak hurbil diren erakundeekin; harreman hauen helburua garbia dago, hots, beraien artean laguntza eta nazioarteko harremanei buruzko estrategiak elkar eginak izan daitezten. Har dezagun kasu batetarako Sozialdemokratek duten II. Internazionala eta honek Espainiako Estatuan PSOeri eman dioten laguntza; eta, laguntza hau ez da diru aldetik bakarrik izan. Zeren, formazio laguntza, koadroak, gobernuaren aurrean egindako presioak etab... ere kontutan hartzekoak baitira. Dena den, bistan dagoena zerauxa da: internazional mailan harremanak edukitzeak, barneko politika aberastu egiten duela eta alde askotatik.

CHARTRE DE BREST (DECLARATION SUR LA LUTTE CONTRE L'IMPERIALISME EN EUROPE OCCIDENTALE)/1974-1976



UPG	Union du Peuple Galicien
UDB	Union Democratique Bretonne
IRM	Mouvement Republicain Irlandais (Sinn Féin & IRA officials)
CG	Pays de Galles Rouge
EHAS	Parti Socialiste du Peuple Basque
ECT	Gauche Catalane des Travailleurs
PSANP	Parti Socialiste de Liberation Nationale des Pays Catalans (provisoire)

Honela, bada, erakundeek eta alderdiek nazioarteko harremanak elikatu egiten dituzte harreman errentagarriak baitira, elkar lanean blokeak egiteko bederen.

Maiz entzun dugu, Europa Sartalderako gizalari hau nazionalitateen gizaldia dela; egida da, adibidez, gisa hor ditugu Britainia, Sardinia, Irlanda eta abarrek herrialdeetan ematen ari den kontzientzia prozesua; eta nola ez, Espainiako nazionalitatearen aldeko burruka etengabea. Nazionalitate hauek ez dituzte, noski, beren erakunde politikoak oso sendoturik, erakunde iraultzaileak behintzat; zeren, sozialismoaren aldeko burruka guztia orain arte bederen, Nazio-Estatu kontzeptuari loturik egon baita hulegia, sozialismoaren aldeko burruka alderdi estatutalek eraman dute, nazioenganako zapalketaren aurka ezer gutti eginez. Bistan dago, Europa mailan diren erakundeek ez dietela nazio arazoetarako hasierak hasurik egin, arrazoi nagusia hau izan liteke: estrategia diferenteetan finkaturik direla, beraz, bide diferenteetatik abiatuak. Hau guztiau dela eta, nazio zapalduen alderdi iraultzaileek beste bideetatik abiatu beharra ukan dute, eta honoko kontextu honetan uler daiteke 1974. urtean alderdi iraultzaileek (hertzaleak direnak) egindako Deklarapena. Alderdiak hau ziren: UPG, UDB eta IRM. Geroztik "Chartre de Brest" honen barnean beste erakunde batzuen ere sartu dira, hots, EHAS, PSANP, ECT eta CG.

Zenbait bilhura egin dituzke; lehena, Bresteko Britainiako herrialdean; bigarrena, Le Mur-en, eta azkenengoa Parisen Ekainaren 18 eta 19an.

Aurtengo bilerarako bi alderdi ziren eskatzen zutenek Brest-eko Deklarapenaren egituraren sarturik egotea, hots, L.O. eta SPS-MCC. Lehenengoari uko egin diote sarrera bi arrazoitan oinarrizki:

- 1- LOren nazionalismoa ez delako batere arrazionala.
- 2- Ideologia aldetik zalantza gehiegi dituelako.

Dena den, LOko ordezkaria bileretako partaide izaten da, nahiz eta boturik ez ukan, so egitea gisa dugu beraz.

Bigarrenari SPS-MCC-ri baietza eman diote eta aurtendik hasita Chartre de Brest-eko egituraren beste erakunde bat izanen da. Zein da ba, Brest-ekoen eginahia?

XVIII eta XIX. gizaldietan burjeseriak sorturiko Estatuak Nazio-Estatu kontzeptuaren ez dute erabiltzen ikusirik nazio kontzeptuarekin, honako hau herri kontzeptuarekin neurtzen baldin badugu behintzat. Hulegia, burjeseria merkatal koordinada batzuren mugituz, herri ttipiak menperatu egin zituen, haien kultura, hizkuntza eta politika aldatuz. Kontua da herri ttipi horiek zapaltzeko estrategian era ezberdinetako neurriak eta tresnak hartu dituela; bai ekonomikoak; bai ideologikoak; eta nola ez batzutan militarrik. Ideologi mailan esate baterako-burjes-

riak elikaturiko "gran chauvinismo" horrek, ba du bere zentzua, hots, Estatuarenganako identifikazio bat sortu nahia. Beraz, populazioa ez dadin bere herriarekin identifika, Estatuarekin baizik. Honen ondorioa —ideologia mailan— abertzaletasun faltsu bat besterik ez da.

Bestaldetik, langileriaren aldeko erakundeek ez dute zerau jakin: burjeseriaren kontzepzio estatal hori deuseztatzen. Eta, herri ttikiak —handiak direnak— ez dute erakunde klasikoetan defentsorik ukan. Hau da Brest-eko eginahia, optika berri bat egitea, burrukabide berri bat irekitzea; azken finean herri bakoitzari bere nortasuna itzultzea. Beraz, Herrien neurriko Europa Sozialista bat lortzea.

johannes goibela

BREST-EKO BILTZARKIDEEN SEIGARREN BILERAKO AGIRIA

1977.eko ekainaren 18 eta 19an Parisen bilduz, Brest-eko biltzarrearen erakunde sinatzaileak:

1) Argi ikusten dute ezen mundu mailan inperialismo eta kapitalismoaren aurka askatasun nazional eta soziala lortzeko burrukak gorantz doazela eta honek inperialismoaren eta Estatu kapitalisten krisia areagotzen duela. Mendebal Europan, Estatu desberdinetako herri zapalduak beren askatasunera-ko burruken aitzinamendua somatzen dute, masek beren egintzari ageri dioten atxikimenduaren kausaz.

— Espainiako Estatuan, demokratizatze prozesua errealtate bihurtzetik hurbil dago, oligarkiak azaleko demokratizatzea baino nahi ez zuen arren, honela mundu kapitalista modernoari egokitzeko, hauxe baitzen Europako Komunitate Ekonomikora (E.K.E.) sartzeko bide bakarra. Herriaren presioaren eraginez, erregimenak kaleratu egin behar ukan ditu euskal preso politikoak, eta une honetan bere problemarik nagusia nazionalitateen arazoa konpontzea da.

— Frantziako Estatuan, herri zapalduen kontzientzia hartzearen gorakada argi ikusten da, hauteskunde munizipaletan lortu den arrakastan eta, halaber, masa mugimenduetan duten intzidentzia hazkorrean. Bestalde, honek zentralizatzaileen erreakzio bortitza probokatzen du.

Irlandan, langile klaseak edozein tokitatik datozen intriga sektari eta faxisten aurka burrukatze-ko batasun nahia agertu du.

— Gales Herriari, benetako autonomia lortzeko burrukak iraun egiten du, eta batez ere hizkuntza galesaren ezagupenaren aldekoa.

2) Askatasun nazional eta soziala lortzeko burruken aurrean, inperialismoak errepresioz erantzuten du nonnahi bere agente lokalen bidez, horretan inplikaturik dauden Estatu-erakundearen Gobernuen erre-

presio antolatuz eta koordinatuz, eta kolusioa eguz argiz agertzen delarik.

3) Herri zapalduetan sortu eta etengabeki haziz doan askatasun esperantza hau, gaur egun Brest-eko Biltzarre barneko alderdiak lotzen dituzten harremanetan konkretatzen da.

Inperialismoaren errepresioaren aurka,

GORA HERRI ZAPALDUEN SOLIDARITATEA! HERRIEN EUROPA SOZIALISTAREN ALDE! GORA PROLETALGOAREN INTERNAZIONALISMOA!

Brest-eko Biltzarrearen erakunde sinatzaileak:

UPG: Galiziako Herriaren Batasuna

UDB: Britainiako Batasun Demokratikoa.

IRM: Irlandako Errepublikar Mugimendua (Sinn Fein eta IRA ofiziala)

ECT: Langileen Ezker Katalana

CG: Gales Herriaren Batasun Gorria

EHAS: Euskal Herriko Alderdi Sozialista

PSANP: Herri Katalanen Askatasun Nazionalerako Alderdi Sozialista (behin behinekoa)

SPS-MCC: Sardu Herria. Kolonialismoaren aurkako mugimendua.

Okzitaniako "Lutte Occitane" taldearen ordezkariak ere onhartu du textu hau.

PARISen, 1977.eko Ekainaren 19an



*in medio stat virtus*

Nolabait, Frantziako eskuin politikoak Pompidou hel arte ez zuen buruhauste handiegirik ukan, Pompidou berak jasotzen zuelako gaullismoaren hautesleria batipat. Baina, gaullismoa minaturik zegoen lehendik ere, beraz, haren hegemonia aldatzbehera zihoan. Hau dela eta, eskuinak beste alternatiba bat behar zuenez, Giscard plazaratu zuten. Ez da kasualitate bat, Frantzian Espainian bezala eskuinak zentruarekiko proiektio bat egin nahian ihardutea, hau da, zentrua bereganatu eskuintean finkatua eta oinharritua egonik.

Honek, Giscard jaunari 1974. urtean hauteskundeetako irabazle egin zion, lau urtetarako bederen. Hala eta guztiz ere, Giscarden "progresismoa" frantsesen patriketatik pasatzen denez, eta Ezkerraren Batasuna egunetik egunera finkatuago egonik, Giscarden politika ere kasik lurra jotzen dago, edo eta haren hegemonia guttienez. Egun, Frantziako "gehiengoa" zatiturik dago: batzu giscardista, besteak girakista; nahiz eta honek esan nahi ez 1978. urteko hauteskundeetan batuko ez direnik.

Honela ba, jendearen ustetan 1978. urteko hauteskundeak Ezkerraren Batasunak irabaziko di-

Egun, Frantziako Alderdi Sozialista bi partetan banatua dago, eta kasik organikoki. Bata gehiengoa duena —o/o 75— mitterrandiarra, beraz, sozialdemokrata; bestea CERES guttiengoa —o/o 25— erradikalago eta, nola ez, aktiboago. Bigarren honek menperatzen du Pariseko Federazioa halaber tendentziaren prentsa argitaratzen du, eta edonori arraroa egiten zaiona: CERES bezala erlazio autonomoak ditu, bai Frantzian zein herbertean. Adibide batetarako komunistekin dituzten harremanak mitterrandistenak baino askoz ere hebeago dira eta, bistan dago, Mitterrand jaunari gero eta molestagarriago egiten zaizkiola komunistekin dituzten harremanak. Ezaguna da ere, CERES ekoak anti-Soares direla, Mitterrand Soaresen aldeko den bitartean.

Honela, Mitterrand jauna zeronetan baliatzen da CERESekoei ostikoka ibiltzeko, hots, alderdiaren barnean homogenotasuna behar dela botere alternatiba bat izateko.

Mitterrandisten estrategia hau zaharra da, egia esan, zeren Pabeko Kongresuan CERESekoak alderdiaren zuzendaritzatik egotziak izan baitziren.



tu; izan ere, lau urte lehenago izandakoetan hurbil egon baitzen.

Hau guztiau —honi loturik diren arazoak ere— izan da Nanteseko Kongresuan militante sozialistek aztertu dutena batipat. Bertan, 5000 inguru sozialista —PSF— bildu dira Ekainaren bigarren asteburuan.

Gaur egun Mitterrandek hainbat posibilitate ditu hurrengo presidentea izateko, horrexegatik bereziki alderdiaren barneko tirabirak konpondu beharra dute, zeren ezin baitute permititu PSF barneko tendentziak —CERESekoa batez ere— ukan dezaketen gobernamendua zirikatzea.


Oraingoan, Nantesekoan Mitterrandek hauxe esan ditu die CERESekoei: autodisolbatzea.


Dirudenez, Mitterrandentzat —gehiengoaren erantzule— hurrengo gobernuan estableki mantentzeko ezin dute inor izutu eta zentraldera desplazatu. Hala har dira, nahiz eta sozialdemokratak izan, beraz, eskuinera jo behar dute. Horrexegatik CERESekoa deuseztatzea beharrean dira, ez dezaten haiek inozerlazio bat inolaz ere amil, noski, ezkerralderatzen.


Mitterrand jaunarentzat ere bai

in medio stat virtus

johannes goibela







anaitasuna

euskal herritari,
informazioa
euskaraz.



SUKALDERAKO SALTSAK

BIPERRADA

Biperrada egiteko errezeta:
6 Lagunentzat behar dituzu:
Tipula handi bat, 8 biper berde, baratxuri atal bi, tomate lata bi, 150 gr. urdaiazpiko (York izan daiteke), 150 gr. txorizo, olibolia, gatza eta biperhautsa.

Tortilak egiteko: Arraultzeak


Lapiko batetan ipin olibolio pixkat. Garbi eta zati biperrak, tipula eta baratxuri atalak. Bota lapikora eta ipin erretzen. Eragin sarritan, erre ez dadin, eta doratu denean bota iezaiozu urdaiazpikoa eta txorizoa. Eduki guzti hau frijitzen. Ongi doratu eta gero bota lapikoran tomatea, gatza eta baso bete ur. Su ttikiaz utz egosten, salda guztia lurrundu arte. Pasta bat bezala geratu behar da.



Bestaldetik, arraultzeak irabia, kat. Guzti honekin tortila bat egingo duzue, zainzuri edo perretxiko bat edo bi, bakoitzak nahi duen go duzue, zainzuri edo perretxiko arauera, eta biperrada pixkat ipin tortiletan bezala. Beste tortilak berdin egin.
iezaiozu biperradari biperhauts pix-

On egin

Egia nahiago duen marka



Otsein 
Asmoak eragile

GARBIGAILUAK, BAXERA-GARBIGAILUAK, HOZKAILUAK, TERMOAK, EGUZKI PLAKAK.

ANAITASUNA, 77 - 7 - 1

29. hor.

elkar rikusika

Egunotan euskaraz mintzatzen ikasteko liburu berri bat kaleratu da: Euskal/Erdal gidaliburua. Espainol-frantses-euskarazko esaldi eginak dakartza, elkarrizketarako egokiak. Ez da hau, noski, euskaraz gisa honetan egin den lehendabizikoa, jadanik XVII mendean Voltoirek bere *Tre-sora* hirur lengoajetakoa agertu baitzuen, eta ordutik hona, gainera, beste asko izan dira argitara emanak.

Oraingoaren egilea Tomas Trifol da, bilbotarra, 31 urtetakoa, euskaldun ikasia. Hamar urte-tan, eta ez soilki bizarra edukitzeagatik, Belgikan herbesteratua. Beragana jo dugu, bere obra honen berri eman diezagun.

Zer nolako liburua da hau, Tomas?

Euskal-erdal gidaliburua da. Eta gidaliburu guz-tietan bezalatsu, esaldi erabileenak eta elkarrizketa normalenak azaltzen dira. Geure eguneroko bizimo-duan askotan, eta konturatu gabe, errepikatzen ditu-gun esaldi eta hitzak hemen agertzen dira. Egunero-ko bizitzan euskara normaltzeko eginik dago, hain zuzen. Eta euskara plazaratzea zera da: autobusetan, trenerako txartelak eskatzean, bankuetan, harategie-tan etab. normalki egitea. Horretarako esaldi stan-dard batzu proposatzen dira, eta, jakina, euskaraz, beronek daukan tradizioaz pentsaturik, eta ez erda-razkoaz.

Non oinharritu haiz?

Israelen erabili zen den gidaliburu batetan oin-harturik dago, hain zuzen. Beste zenbait gidaliburu ere kontutan hartu ditut, frantsesezkoak, ingeleses-koak etab. Baina azken hauei akats bat topatu diet: gehienetan turistentzat eginik daude. Ba dakik, atzerrira joanez gero batzutan bertako hizkuntza erabili beharrean aurkitzen haiz, eta orduan holako liburuetara jotzen duk, gosez hil nahi ez baduk be-hintzat. Gure kasua, ordea, ez da hori. Hemen beti ditugu erdarak. Larriena, ene ustez, horixe da. Ho-rregatik gidaliburu klasikoetan ukitzen ez dena uki-tu behar izan dut nik hemen. Azken batez euskara egitea edo ez egitea borondatzeko gauza bat bihurtu zaigu zoritxarrez. Baina euskara toki guztietan egin ahal izateko, euskara erraza, errax ulertzekoa behar dugu, euskara finkatua, beti berdina. Israelen bezala.

Zertarako egin duk methodo hau?

Hara, euskara plazaratzeko, lehengo eta bat. Begira, exenplu bat jarriko diat. Ni Getxon bizi naiz

30. hor.

eta egunero trena bertan hartu behar izaten dut. Be-hin trenerako txartela euskaraz eskatzea bururatu zitzaidan. Orain egunero egiten dut. Guztiek uler-tzen didate, eta gainera, hirugarren egunerako eus-karaz erantzuten hasi zitzaizkidan. Hau, bestalde, ez da methodo edo irakasbide horietako bat. Euska-rak, beste hizkuntzek bezala, estudio sakonago eta luzeago bat behar du. Oraingoak ikasten ari denari mintzatzen hasteko lagundu nahi dio, soil soilki. Esaldiak eta esaldien estrukturak buruz ikasi behar ditu hemen, azalpenik gabe. Tamainuz sakelean ero-mateko modukoa da, tarteka irakurtzeko. Durango edo Oihartzunen euskaraz ikasten ari denak, lehen mementutik euskaraz mintzatzen saiatu behar du, ikasiko badu behintzat.

TRESORA
HIROVR LENGVAIETAQVA,
FRANCESA, ESPAGNOLA,
ETA HASQVARA.


OBRA

Qua etia necessaria nore desiracen bayton oranden
Lenguie horengat.

..

BAYTONAN.

FRANCIS BOYRDOT, Libourou Eguillaren eshian. 1643.



Nortzurentzat egin duk liburu hau, orduan?.

Euskaraz ikasten ari diren guztientzat, euskara egin nahi duten guztientzat, eta euskaldunontzat ere bai, maiz, erdararen eraginpean, egiten dugun euskara traketsa zuzentzen ahalegin gaitezen.

Nolako esaldiak dakartza?.

Bizimodu normalekoak, esaldi arruntenak, betiko egoeretan erabiltzekoak. Haurrekiko esaldi entzumenak ere jarri dira, gurasoentzat probetxegarriak izango direlakoan. Batzu, gainera, arraro xamarrek gerta daitezke, biraoak eta antzeko esaldi gogorrak, baina, ene ustez, hobe dugu holakoak ere euskaraz esatea erdaraz baino.

Zer moduko euskaraz egin duk liburua?

Oinharrizko euskara batuan, batik bat. Hori ez da, ordea, laborategiko euskara bat. Euskara erraza, baina jatorra eta batua. Aita Mokoroak, eskolapioetan geundenean, sarritan esaten zuen Parieseko ata-zain batek frantsesez 1.700 hitz inguru besterik ez zekiela, eta hala ere frantsesez oso ongi mintzatzen



zekiela. Eta hori egia da. Hizkuntza bat egiteko ez duk beraren grammatika ikasi behar.

Hirur hizkuntzetan egin duk heurea. Zergatik hori?

Begira, hemen bizi diren askok iparraldea ahan-tziagia daukate eta bertako Euzkadia ere Euskal Herria dela gogoratu behar zaie. Bertako gazteria frantsestua ere euskara ikasten ari da jo eta ke, eta euskal produkziarik gehiena espainol hutsez egina denez gero, ez diegu laguntasun handirik egiten berariei. Frantsesez jartzeak, bide batez, beste abantail bat ere ba du, hots, zenbait hitz-garbizaleak mintzatzean zer nolako joskera espainola dabilten erakustea, frantsesez esaldiak nola diren jartzean salhatuz.

Zenbat denboran ikas daiteke euskara, hire ustez?

Nik neuk hiru hilabetez euskara egiten nuen. Egin, diosat, egin, jakin ez, ordea. Egitean gero eta gehiago ateratzen zaik, gero eta gehiago egiten duk. Egiten ez baduk, teorikoki asko jakin arren, ez duk inoiz ezer lortuko. Azken batez borondatezko gauza bat da. Beharrezkoa iruditzen bazaik, egon lasai, laster egingo duk; folklokeriatzat hartuz gero, ordea, sekulan ere ez. "Zenbat denbora behar da Bilbotik Gernikara oinez joateko?" galdetu omen zioten behin baserritar bati, eta hark honela erantzun: "Hara joateko daramazun presa nolakoa den. Astiro bazoaz, denbora asko; arin joanez gero, guttiago". Eta arrazoia zuen.

Ezer gehitu nahi al huke?

Bai, hemendik Gexan Lantziri herkideari eskerak publikoki eman nahi nizkioke, frantsesezko zenbait esaldi moldatzeko eskaini didan laguntasun baliosagatik.

Eskerrak hiri, Tomas, eta ea liburu berri honek, guztion onerako, arrakasta handia daukan.

Xabier ARMENDARITZ

robert austerlitz-ekin hizketan

Columbia-ko unibertsitatean irakaslea delarik New York-en, Estatu Batuetan 1938.etik bizi da. Hizkuntzalaria da, fino-ugriera taldeko hizkuntzak batez ere izanik haren ikertzenaren ardurakoak. Orain Koloniako unibertsitatean dago irakasle gomitatu legez Hizkuntzalaritzarako Institutuan. Hor tipologiako mintegi bat zuzentzen du eta orobat poetikazko beste bat. Berarekin berba egiteko abagadune egoki bat eduki dugu eta Anaitasunarako interbista honetan gogoz eta zintzo hartu du parte.

Errumaniako hiriburuan jaioa 1923.ean, Bukarest-en, aita austriarra zuen eta amerikatarra ama. Etxeko hizkuntza nagusia alemana zen eta Lizeokoa, berriz, errumaniera, lau urte bete eta gero baina Brasov deritzon hirira aldatu zen bizi izatera, eta esandako hizkuntza horiez gain kalean hungariera ikasi zuen, hiri hau hungarieraz egiten den Errumaniako eskualdean baitago. Ingelesa eta frantsesa 15 urterekin hasi zen ikasten, h.d., Ameriketara alde egin zuenean. Ameriketara ikasketak jarraitu zituen eta erdikoak egin eta gero, 1752.ean George IIak sorturiko Columbia-ko unibertsitatean sartu zen hizkuntzalaritza ikaste-arren. Beste irakasle batzuren artean André Martinet ere maisu ukan zuen, eta 1951.ean lizentziagoa erdietsi zuen hungarieraren sistema fonologikoaz ari zen tesi ttipiaren bidez. Epe horrexetarako bitartean, gerran hartu zuen parte soldadu bezala. 51.tik 53.ra Finlandian egon zen Helsinki-ko unibertsitatean irakasle, bide batez finlandiera ikasten zuela eta fino-ugriera taldeko beste hizkuntzetan sakontzen, hala nola laponiera eta Sobietar Batasunean mintzatzen diren sirjaniera, permikera, Woguliera eta beste. 1954.ean Giliakera izenezko hizkuntzaz arduraturik, Siberiako azken muturrean 5 bat mila pertsonen hitz egindako hizkuntza, Japonira jo zuen, alde hartan hizkuntza horren hitzun taldetxo bat baitzegoen Siberiatik alde egina. Bide batez japoniera ikasi zuen. Estatu Batuetara itzulita tesia aurkeztu zuen eta defendatu ostiakiarren bertsogintzaz. 1955.ean amaitu zela beraz, hurrengo urtearen Irailean Japoniara joan zen berriro ere hasiriko ikerketak jarraitzeko, hots, giliakerari buruzkoak. 1958.arte han egon zen, gero berriz Finlandian labur, eta Columbiara itzulita, hizkuntza uralikoen eta poetikaren irakasle bezala hasi zen lan egiten; gaur egun oraindik lan horretan jarraitzen da.

Liburu bi ditu idatziak, tesia bera eta finlandiera ikasteko metodo bat. Horrez gain artikulu pilo, dela hizkuntzalaritzaz, dela poetikaz, edo eta honek musikarekin dauzkan harremanez, aitortu zidan legez musikalaria zaletasuna sekula agortu ez baitaio, piano jotzen ba dakielarik ondo.

Interbista gaztelaniaz egin dugu, galizismo

nahikoa erabili arren oso ondo menderatzen duen hizkuntza baita espainiera.

A. E. Galdera.— Zein eskolatan, eskola linguistikotan, sartuko zenuke zeure burua, zeren zuk zeuk mintegietan maiz transformazionalisten arriotzat jotzen baituzu bera?

R. A. Erantzuna: *lehendabizikoz zera pentsatu behar duzu, nik 41-50. urteetan ikasi nuela eta Chomsky-ren lehen lanak 1956.ean agertu zirela, nire hezkuntza linguistikoa beraz guztiz klasikoa da, hots, estrukturalista klasikoa. Neure irakasleen artean funtzionalistaren bat ere eduki dut, hala nola André Martinet bera, denbora hartan hortik baitzebilen irakasle. Chomsky oso hezia bada ere, benetako gizon jakintsua, haren jarraitzaile guztiak oso jende ezjakinak dira, eta izpiritua badarabilte ere hitzetik hortzera, h.d., gizaizpiritua, mekanikista hutsak dira, azken batetan pentsatzen dutena zera delako, den-dena mekanika daitekeela.*

A. E.— Bai, baina hori da hain zuzen ere bihurtzaileek (transformazionalistas/transformationalistes) zeuei egozten dizuena, zuen sistema mekanismo huts bat besterik ez dela, taxonomia bat, eta absolutuki antzu.

R. A.: *Egia da, bai, ba dakit antzu garela. Hori, baina elkarri egiten diogun akusazioa da, haiek ere gu bezain, edo eta gu garen neurri eta heinean, antzu baitira. Guk, baina, ez ditugu aiton-amonak hortik zehar bilatu behar, beraiek egiten duten moduan, besterik ezean "pedigree" baten beharrean aurkitzen direlako. Horrela, bada, Chomsky-k arrazionalismoaren bidean jarri nahi du bere lana, positibisten kontrakartzat alegia. Eta hori oso ondo dagoke, baina ez da gure lana...*

A. E.— Martinet-ek, esate baterako, bere "Economie des changements phonétiques" deritzon saiorearen sarreran hori berori esaten du, hizkuntzalariek ez dutela hatsarre filosofikoen beharrik, ez dutela inola ere horrelako konplexurik jasane behar.

R. A.: *Hori da. Hizkuntzalariek linguistikak dira, ez filosofo, edo filosofosko, eta hori da, izan ere, Chomsky-ren arazoa, filosofiaritza jo gura duela bere burua.*

Honek, hala ere, ez du esan nahi haren tesiak balio gabekoak direnik. Eman dezagun, ideia jaiogabeko hipotesia oso da produktibokorra eta neurri handi batez ere baliotsu, azken funtsean hizkuntza guztiei amankomun zaiezen zerbaitek egon behar dukeela, nik ere uste baitut, dela gramatika unibertsal bat, dela beste edozer.

G.— Zeu harrapatu zaitu inoiz, argitaratzen den guztia irakurtzeko ezintasuna dela bide, depresioak? Ikasten duten guztiei hori noizbait gertatzea oso gauza normala da eta.

E.: *Begira, orain dela hogei urte, gure arloan agertzen zen guztia irakur ahal genazekeen. Ez zen larregi eta ordena apur batez egin egiten zen. Egun, ordea, ezina da, zuk diozun bezala, hala eta guztiz ere, horrelako depresio batek ez nau sekula hartu, idazten den gehiena huts hutsa delakoarekin, alemanez dioten bezala "Quatsch", kontziente naizelako.*

Gaur egun soziologia Estatu Batuetan hori hain zuzen, eta hizkuntzalaritzarekin gauza bera egin gura da. Hango unibertsitateen bizitze akademikoa merkatu baten antzekoa da, kontsumugizartea horraino sartu da. Helburu nagusia zer berri bat aurkitzea da, eta ahal bada, bide batez edonoren kontra astoarenak eta bost jo eta botatzea. Unibertsitatea elkartez elkarre dago antolatuz, zientifiko badira ere, eta zein eta gogorrago jo, hura nagusi. Zoritxarrez giro bera Europarantz hasi da heltzen. Horregatik Institutu hau gustatzen zait —Koloniala— bertako zuzendaria aski beregain delako, Hansjakob Seiler, halegia.

A. E.— Esaten duzuna egia da; baina zera gehituko nuke, zerbait berri idatz ahalik eta gaitzen ulertzeko moduan...

R. A.: *Horixe bada; joan den mendean Alemania zen munstro horien guztien sorlekua. Orain, ordea, Frantzia dateke. Poetikaz, edo eta bere buruaz ari diren eskola aldra hori, dela Kristeva, Barthes, Greimas, eta guzti horik. Argitu gabe, nahastu eta oker erazi besterik ez dute egiten.*

A. E.— Hala ere, ez nuke horren gogor joko, gauza asko benetan argitan jarri dutela ez baitaiteke zalantzarik egin...

R. A.: *Joan den gizaldian, alemanek egindako hiztegi batzu irakurri baino merkeago, hizkuntzak ikastea zen, indoeuroparra bera bazen ere... Edozein kasutan ere, Frantzia da, ene aburuz, gaur egun, alde horretatik kakalekurikshandiena.*

G.— Askotan zuei hizkuntzalariei, zuen zientziak ez duela ezer balio botatzen dizue aurpegira; oso maila abstraktuan higitzen dela, ez duela ezertarako balio eta horrelako...

E.: *Alde batetik hori ez da egia, soziolinguistika hor baitabil lan eta lan. Hala ere beronen arloa ez da oso zabal, gutiengo linguistikoen arazoak, hizkuntzen irakaskuntza eta beste bizpahiru problema kentzen baditugu.*

G.— Beste modu batez galdera formulatuta, hizkuntzalaritzak, zure ustez, bere burua justifikatzen, zientzia izateko eskubidea ahal du?

E.: *Nire ustez bai, bere helburua bizitzearen ikerketa delako, nahiz eta aztertzen duen arloa aski abstraktua den eta bizi praktikorekin harreman zuzenik ez duen. Ona da gizakia gizakiarekin arduradadila, baina baita kontzientziak agintzen diona egin dezala. Edozein kasutan ere, ez dut erromantismorik egin gura, esan dudana esan arren, ez baitut hizkuntzalaritza askabide bat denik edo horrelako zerbait esan nahi.*

A. E.— Baina zure eritziz ba du nahikoa justifikaziorik.

R. A.: *Alkimiak eta astrologiak ez bezalaskimikak daukan neurrian. Hizkuntzalaritza gizakiarekin aurreratu eta aitzineratu da, eta aitzineramendu horretarako balio du, hizkuntza giza fenomeno bat denik ezin uka daitekeelako.*

G.— Poetikaren arloari heltzen diogula, zuk obra literariak aztertzeo darabiltzazu bideak eta formalismoarenak oso antzekoak dira. Haren eragipena jasan duzua inoiz, are konkretuago, Jakobson-ena?

E.: *Egia esan, ez. Gainera Columbia-n hasi nintzenezan Jakobson-ek alde egin zuen handik. Orduan alde horretatik, nahi baduzu, formalismoaren metodoak darabiltzaket, baina ez kontzienteki, erran nahi baita, ez dudala neure burua formalistatzat jotzen, ez eta jo gura. Columbia-n hungariar irakasle bat eduki nuen, Lotz, Jakobson-en lagun hurkoa zena; haren bidez agian heldu zitzaidekeen zerbait Jakobson-engandik. Baina honen eragipena gero jasan dut zuzenik, eta ez poetikaren arloan, hizkuntzarenean baizik, h.d., lehen aipatu dizudan giliakera delako hizkuntza ikertzen hasi nintzenezan, bera ere, hizkuntza horrekin oso interesatuta baitzegoen. Oso izpiritu sarkorreko gizona da, baina ba diotsut, harekin hizkuntzez ari izan naiz beti. Noski, berak ere nire tesia gogoz irakurri zuen, azterketa poetiko bat zen neurrian, eta egitura asko errusierazko poetikan aurki daitezkeen berberak direlako, hala nola, paralelismoa. Baina besterik ez.*

G.— Eta lehengo gaiari helduz, kritika formalista nahikoa iduritzen zaizu obra literari bat aztertu ahal izateko?

E.: *Ez, nahiz eta parterik garrantzitsuena den. Textua, egilea kontutan hartu gabe ez da ezer.*

A. E.— Niretzat hori argi dago, euskal literaturan horrelako kasu berezi batzu ere baitaizkagu.

R. A.: *Araza zera da, elementu bien arteko orekaren aurkitzea. Hori lortzen denean pentsa daiteke kritika ideialetik hurbilen garatekeela.*

G.— Zelan ikasi duzu gaztelania?

E.: *Begira, niri ikasteaz gain bizi izatea ere gustatzen zait, eta gaztelania espainiar errepublikar herbesteratuekin ikasi nuen New York-en, haiekin jai ibiltzen nintzenezan.*

A. E.— Horrekin pozten naiz, zeren nik ere uste baitut, irakasle gehienek ez dakitela bizi izatean, ez daukatela bizi izateko gogorik.

R. A.: *Bai, ez dakite zertarako duten plazer intelektuala, atsegin zientifiko...*

A. E.— Ez duzu uste, horrek zerikusi handia daukala irakasle askok duten Jainko-komplexuarekin...?

R. A.: *Jakina!*

A. E.— Eskerrik asko elkarrizketa honegatik.

Andolin Eguzkitza

EUSKAL HERRIAREN SYMBOLOEZ

Orain dela guti, Kimu Berri Taldeak Euskal Autonomi Estatutu baterako bere aurreprojektua agertu du. Aurreprojektu horretako azken partean, Estatu modernoan konstituzio gehienetan bezala, hiriburutasun eta symbologiari atal bat utzi zaio, hor, hiriburuaz batera, bandera, harmarria eta hymnoa proposatuz.

Symbologia, Estatu sortu berri edo birsotuetan, ongi pentsatua baldin bada, Herriaren iragan historiko ukatua berreskuratzen, birbizten ahalegintzen da beti, zaharrekiko loturak sendatzen, hitz batez.



Iruinea, euskaldunen hiri buruzagia


EUSKAL HIRIBURUA

Euskal Herriko hiriburu historikoa, honetan ez dago zalantzarik, Iruinea da. Bertan sortu zen, prezeski, Eneko Haritzaren garaian gure lehen Estatua, Iruineko Euskal Erresuma. Holaxe ikusi zuen, XVII mendean, Arnaut Oihenarte zuberotar historialariak; Joanes Etxebarri Sarakoak, XVIII mendean, "Iruinea euskaldunen hiri buruzagia" zela zioten, herri senaz gure nazioaren bihotza hortxe zegoela agertuz; holaxe ere sentitu zuen joan den mendean Arturo Kanpionek, eta guk ere dugu oraingoan. Gaurko euskaldun guztiok, eskuinetik ezkereraino horretan bat

gatozela ematen du, Nafarroaren euskalduntasuna ukatzen dutenek bere burua, automatikoki, bastarri eta eznazionaltzat agertuz.

IKURRINA

Banderaz den bezainbatean ere batasun osoa egon da. Euskal bandera nazionala ikurrina da. Banderara eder hori, Kastro Urdialitzetik Eskiularaino haintzat hartua, Sabino Aranak asmatua da, eta ongi asmatua gainera. Ordurarte ez zegoen Euskal Herriaren beste banderarik gure nazioaren simbolo gisa erabilia izan zenik. Aranak asmatu zuen, lehentasuna berea dauka, eta hori aitortzea eta eskertzea bidezkoa da. 1936.eko Euskal Gobernuak, gainera, euskal bandera ofizialtzat hartu zuen. Hori dela eta, Kimu Berri Taldekook ez dugu horretan inolako dudarik eduki bandera aukeratzean.



1936.eko LAURAK BAT ofiziala eta egungo proposamendu berri bat

HARMARRIA

Harmarria, ordea, ez da erabaki. Izan ere, ez da inoiz egon Euskal Herri osorako harmarri ofizialik. Zazpiak bat delakoa oinharri federalista ("Euskal Estatu libre eta independenteen batasuna") eta erromantiko batez asmatu zen eredu ezberdinetan. Aranak berak ere holako bat proposatu zuen, zertxobait elementu (Bizkaiko harmarria, kasu) bere gogara aldatuz. Horrekin batera, ordea, beste modelo batzue ere ba daude bazterretan. 1936.eko Euskal Gobernuak "laurak bat" delakoa onhartu zuen ofizialki, eta ez zazpiak batekoa. Ez dugu izan, hortaz, gure nazio osoa adierazteko harmarri ofizialik. Hori dela eta, Kimu Berri Taldeak, proposamendu gisa, dauden zazpi herrialdeen harmarrietako elementu edo gai bana edo harturik, Euskal Herri OSOA adieraz dezakeen harmarri berri bat moldatu behar litzatekeela uste ukan du. Ideia bat, diskutigarria noski, zera dateke, aurreprojektuaren azalean argitaratua: Gernikako Arbola, Nafarroako kateak, Lapurdiko Araba eta Zuberoako lehoiak eta Gipuzkoako hiba eta gizon mazuduna agertzen dituen, behean lauburu daukalarik. Seguraski proposamendu hoberririk asma daiteke, hala ere.


HYMNOA

Punturik labanena, eta, batera, argienetako bat, hymnoarena izan da, askok bestela baderitzote ere. Horretan tradizio garbi bat ukan dugu euskaldunok.

Joan den mendean, karlistek —lehenbiziko nazionalistak— Madrileko zentralismoaren kontra burukatu zutenean, Jose Mari Iparragirre urretxuarrak, bere letraz eta Altunaren musikaz, kantu bat moldatu zuen, orduko euskal soldaduei adore emateko. Hori izan da, historikoki, gure lehen hymno nazionala. **Gernikako Arbola**, luzaro, espainol agintariek galerazia izan zen, eta gaur egun ere, toleratua den arren, erabat ezezaguna da gure mandamas vascongadoetzat, ihaz Bizkaiko Diputaziokoek erakutsi ziguten show hura lekuko.

Letraz, euskaldunon bake eta askatasun nahia azaltzen du hymnoak, eta gure unibertsalismorako joera. Geure literaturan hamaikatxo aldiz erabilitako hitzak ditugu, bai horixe, eman ta zabal zazu. Herriak, bestalde Bizkaitik Zuberoaraino, kantu hori laster beretzat hartu, buruz ikasi eta euskal hymnotzat hartu zuen. Arana-Goirik berak (Obras Completas, 192.hor.) “glorioso himno de Altuna e Iparragire” deitzen du **Gernikako Arbola**.

Geroago baina, 1895.ean, gartzelan zegoela, Sa-



GERNIKAKO ARBOLA, Euskal Herriaren symboloa

binok beste hymno bat, **Euzko Abendearen Ereserkija** (= “Euskal Arrazaren Hymnoa”) eratu zuen, eta musikatzat Bizkaiko herri melodia polit bat ezarri nion. Aranaren hymno berri hori, nazioarena barik, arrazarena zen, eta 1905.ean, hura hil eta gero, **Euzko Alderdi Jeltzaliak** bere hymnotzat onhartu zuen (ikus **Obras Completas**, 2413. hor).

Sabinok egin zuen letra, izenaz beraz hasita, ez da, gure ustez, egokiegia euskal nazio osoaren hymnoarena izateko, darion bizkaitar eta erlijio kutsuaz batez ere. Kantu hori, gainera, alderdi konkretu batena denez gero, ez zaigu oso aproposa iruditua gure nazio osoari jartzeko, hor alderdikeria sartzea ez baita zilegi. Eta holaxe ulertu zukeen, noski, 1936.eko Agirrerren Euskal Gobernuak, hymno ofizialik ez ezartzean.

Bestalde, eta egiari zor zaionagatik, zera esan behar da, **Euzko Abendearen Ereserkija** ez dela Herriaren oso ezaguna. Edozein euskaldunak daki buruz **Gernikako Arbola**, baina PNVEkoen artean ere, gehienek ez dakite Aranarena buruz, ez letra ez musikarik. Meeting-etan behintzat paperak banatu behar izan dira horren letraz, jendeak kanta dezan.

Ba da, azkenean, beste kantu bat, oso ezaguna: **Euzko Gudariak**. Beronen letra, oso oker ez bagaude, Esteban Urkiaga “Lauaxeta”k idatzi zuen. Beronen hitzak, sasoiko arrazoiengatik euskaraz oso jatorrak ez badira ere, gure gudari guztiek kantatu zuten hura gerra denboran eta euskaldunon burruka kantutzat joa izan da beti. Ez da beraz harrigarri, oraino gauden burruka garaion jendeak, Burgoeko prozesukoaren antzera, oso gogoz kantatzea.

Baina, berez, **Euzko Gudariak** ez da —Batasuna kantua bezalaxe— garai normal baterako hymno nazional egokia. Lehengo eta behin, bere aurretik beste hymno historiko bat duelako, eta, bigarrenez, nazio normal batek beti gerra giroan ezin iraun dezakeelako. Norbaitek Frantziako *Marseillaise* delakoa aipa lezake, bai, baina hauzoen zentzugabekeriak ez dira, gure ustez, imitagarri.

Euzko Gudariak, hori bai, Euskal Armadaren hymno propio eta egokia dateke, gure lehengo gudariak oraingo eta gerokoekin izpirituz batu eta lotuko dituena. Baina armada, soldaduak, ez dira nazioa. Hori esatea gure hauzoen balio badaezpadako eta diskutigarriak euskaraz errepikatzea besterik ez litzateke. On da armada egotea, baina gaizki dago armada nazioarekin identifikatzea. Hura beronen zerbitzutan dago —edo egon behar du— baina bata eta bestea ez dira gauza bera.

Hortaz, gauzak beren lekuan utzirik, Euskal hymno ofizialik ezaz, bego guztiontzat, inongo alderdiren ez denez gero, **Gernikako Arbola**; beuka beretzat **Euzko Abendearen Ereserkija** PNVEk, eta gaurko eta biharko euskal burrukariok onhar dezagun **Euzko Gudariak**, lehenagoko gudarien oroitzapenez, euskal armadaren hymnotzat.

Xabier KINTANAK

oinharrizko euskara

Aspaldion sarritan aipatzen da gure artean oinharrizko euskara. Euskal Akademiak berak ere batzorde bat eratu du, euskara hori aurrera eramateko.

Baina zer da oinharrizko euskara? H gabeko euskara? Batasun gabeko euskara? Ez, ez da hori.

Zer da, orduan? Oinharrizko euskara —argi eta garbi esateko— euskara batua da, H eta guzti. Baina euskara honek bere karakteristika bereziak dauzka.

Euskara batuan mailak daude. Maila bat goi goian aurkitzen da. Maila hortako euskara ez da erreza. Euskara hori ondo ulertzeko eta menperatzeko, asko ikasi behar da. Euskara hortan idatzitako artikulak eta liburuak, minoria batek bakarrik irakurri ahal ditu. Euskara hori, momentu hontan behinik behin, ez da Herriarentzat.

Oinharrizko euskara, ordea, hondoko mailan aurkitzen da. Izenak berak dioenez, oinharrian finkatzen da. Oinharri hortatik, batu egin nahi ditu euskalkiak, batez ere hegoaldekoak. Erreza izan gura du, Herriak egunero erabiltzen dituen hitzak eta aditzak eta esaldiak erabiliz. Erreza, baina jatorra eta ederra.

Oinharrizko euskarak gaurko maioriaren hizkuntza idatzia izan nahi du. Orain arte, holako euskara —batua izan ez arren— elizetan eta bertsolarien saioetan entzuten zen. Entzun egiten zen bakarrik. Orain, batasunaren soinekoaz jantzirik, agerkarietara eta liburuetara pasatu nahi du, edozer gairi buruz errez errez idazteko.

Oinharrizko euskarak irakurria izan gura du. Ez bakarrik idatzia. Irakurria batez ere. Irakurlea laguntzeko eta haren atentzioa erakartzeko, inprimagintzaren eta pedagogiaren teknika guztiak erabili nahi ditu. Gauza bat da idaztea, eta beste bat irakurria izatea. Euskaldun gehienek, euskaraz eta erdaraz idatzitako zerbait eskuratzen dutenean, erdaraz datorena bakarrik irakurtzen dute. Oraino ez daude ondo prestaturik, goi mailako euskara batua ulertzeko eta gustura irakurtzeko. Oinharrizko euskarak hutsune hori bete gura du.

Oinharrizko euskarak ez du inor enganiatu nahi. Errealitatea, den bezalaxe agerterazi gura du. Erdaldunek, gure euskarazko agerkariak aztertzen dituztenean, beharbada zera pentsatuko dute: euskaldunek prentsa on bat daukate, 100.000 aletako egunkariak argitaratzen dituzte, Nafarroan bertan ere

hainbeste eta hainbeste ale banatzen dira, Euskal Herrian zehar kontaezinak dira euskaraz irakurtzen dutenak.

Asko idazten dela, egia da. Baina ez da egia, asko irakurtzen denik. Herriak oso gutxi irakurtzen du. Zergatik? Beste kausa askoren artean, berari dagokion euskara ematen ez zaiolako. Beraren egoera linguistikoa, behar den bezala haintzat hartzen ez delako. Maioriari minoriaren irakurbidea eskaintzen zaiolako. Gure Herriaren bikoiztasun hau kontutan hartzen ez delako. Hauxe da errealitatea, humiltasunez beterik aitortu behar duguna. Oinharrizko euskarak kasu egin gura dio errealitate honi.

Baina nola jokatu behar dugu? Baztertu egingo dugu beste euskara, euskara landua, euskara normala, geure klasikoena, geure gaurko idazle bikainena? Ez horixe! Arlo hortan sendo lan egin behar dugu, ikastetxeetan, Unibertsitatean, goi mailako aldizkarietan. Etorriko da garaia, euskaldun guztiok euskara hortan trebatuak izango garena. Baina orduarte zer egin?

Nire ustez, momentu hontan, egunkarietan batez ere, oinharrizko euskarari eman behar genioke lehentasuna. Herriak, Herri ixilak, euskara hori nahi du. Euskaldun berriek —oraingoek eta gerokoek— euskara hori behar dute eta deihadarka eskatzen dute. Geure irakurleen artean inkesta bat egingo bagenu, boturik gehienak —ia denak— euskara horren aldera joango lirakeke. Nik neuk, egin dut neure komentuan holako inkesta bat, DEIA egunkaria irakurtzen duten fraideen artean. Iralabarriko fraideok, denok dakigu euskaraz hitz egiten eta irakurtzen, eta batzuk polito ezagutzen dugu geure hizkuntza. Baina, hala eta guztiz ere, euskara irakurgarriago bat ikusi nahi genuke, Bilbon argitaratzen den egunkari eder hortan.

Nire ustez, Euskal Herriko idazleok seriookiago hartu behar genuke arazo hau. Hor daukagu juduen esenplua. Haien oinharrizko hebraieraren bidea hartu zuten; eta —beraiek aitortzen dutenez— holaxe hebraieratzea. Baina juduen arazo hontaz, beharbada beste egunen batez hitz egingo dizuet.

IMANOL BERRIATUA

DONA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA

Kafetegian sartu denean, Doña Prudentzia zu-
zenki Idealista dagoen tokira hurbildu da, eskuan
daraman boltsa zabaldu eta paper batzu atera ditu.

DOÑA PRUDENTZIA.— Egun on. Ikus dezakezu-
nez, gogoan zaitut.

Eta paperak ematen dizkio.

IDEALISTA.— Zer da hau?

D. P.— "Euzkadi" aldizkaria, PNV-koa.

Idealistak kuriositatez aztertzen du.

I.— Euskara batuan al dago?

Doña Prudentziak sorbaldak jasotzen ditu.

D. P.— Ay, chico!. Yo no sé vascuence.

I.— Ez Erdara batuan dago. Eta Hatxeak eta

guzti... Eta zer, PNV-koa egin al zara?.

D. P.— Que te crees tú eso! Baina dena den, talde
abertzaleen artean PNV da gehien atsegin
zaidana.

I.— Eta nori eman diozu botua?.

D. P.— Nik Suárezi.

I.— (Ironiaz). Nik pentsatzen nuen Fragari
emango zeniola.

Doña Prudentziak hasperen bat botatzen
du.

D. P.— Gizon bezala, bueno, ulertzen didazu... ze-
ren ni politikoa ez naiz...

Idealistak ebakitzen dio.

I.— Ai, Doña Prudentzial! Hori esaten dutenak
dira politikan sartuen daudenak... Baina ja-
rrai.

D. P.— Gizon bezala, Fraga ez dago gaizki. Tipo in-
teresantea du. Baina jenio biziégia. Ba dio
Don Listok, nire senarrak, Alianzak irabaz-
tea nahi zuela, Boltsarako hobeago litzate-

kelako. Hori dio Don Listok. Baina biok
Suárezi eman dizkiogu botuak. Badaezpa-
da.

I.— Bueno, eta zer gosaldu behar duzu?

D. P.— Betikoa.

Idealista gosaria prestatzen ari den bitarte-
an esne saltzailea sartu da.

ESNE SALTZAILEA.— Egun on. Ba dugu "Suárez
para rato".

I.— Ez dut uste.

Doña Prudentziak harriturik begiratzen dio.

D. P.— Nola diozu hori? Ez ditu ba elekzioak ira-
bazi?

I.— Bai, baina Konstituzio berria egin ondoren,
beste hauteskunde batzu egitea beharrez-
koa iruditzen zait. Eta orduan, ezkerrek au-
kera normalagoa izanik, erabaz dezake...

D. P.— Dios nos libre!. Don Listo ez dago ba horre-
tan.

Idealista hurbildu eta kafesnea zerbitzatzen
dio.

I.— ...Eta batez ere, hemen Euskal Herrian.

D. P.— Baina Euskal Herria beti izan da fededun.

I.— Bueno, beti izan dela... Dena den, fedea eta
politika gauza ezberdinak dira. Izan daiteke
fededun eta ezkerreko, eta fedegabe eta es-
kuineko.

E. S.— Gauza bitxi bat esan didate. Euskal Herri-
an, Alianzari botuak eman dizkietenak po-
liziak eta monjak izan direla.

Idealistak gaineratzen dio.

I.— Eta agustinoak.

Doña Prudentziak berehala erantzun dio.

D. P.— Nolako mania diezun agustinoei!

I.— Mania soilik?. Gorroto diet. Neure gurasoek
kondatu didate Francoren errejimenaren
lehen urteetan, haien sermoiak mitin anti-
euskaldunak zirela, eta orain ere, ene ustez,
ez dago hemen agustinoak bezain fraide anti-
euskaldunik. Eta hau zeure semeengandik
jakin behar zenuke. Zenbat euskara irakas-
ten diete kolejioan? Deus ere ez. Agustino-
entzat euskara ez da existitzen.

Doña Prudentziak ez dio ezer erantzun. Ka-
fesnea bukatu, ordaindu eta "Bueno, bihar arte"
batekin irten egin da.

Xabier Gereño

herri baten sendaketa

(Irakur Lk. 13: 10-17)

Jesus, herriz-herri, mitin batzu ematen ari zen Bakearen Urtean. Eta Diktadurak berrogei urtez gaixorik zeukan Herri bat aurkitu zuen: Herri hau erabat lurjota eta burumakur zebilen.

Jesusek, ikusi zuenean, deituz esan zion:
— “Neuk askatuko zaitut gaitz honetatik”.

Bera eskuak lurpean sartu eta... ene! Autoan bertan zerura bidean!!!

Berehalaxe Herriak burua altxatu zuen —xanpain botilak zabaldu— eta Jainko errukiorra gores-teari ekin zion.

Baina Nuntzio jaunak, Bake Urtean eta bostgarrenaren aurka Jesusen sendaketa hori egin zuelako, kabreo santuz eta magnetofono kanonikoa biltuz, honela zioen:

bostgarrenaren aurka doa
bostgarrenaren aurka doa
bostgarrenaren aurka doa
bostgarr...

Orduan Jesusen erantzun zion:

— “Bostgarrenaren aurretik lehenengoak zera dio: Maita Herria, jainko guztien gainetik eta zeure burua baino hobeto.

Magnizidio bat izan dela? “Txiki” zidioak ere izan dira lehen.

A, hipokrita hutsa!!!

Historian zehar hainbat gurutzada saindutu dituzuna!

Deabru seme galantak paliopean sakralizatu dituzuna!

Tanke inperialista ugari gurutzez eta isipuz bultzatu duzuna!

Noiztik odolaren gorritasunaz arduraturik? Noiztik bostgarrenaz kezkatutik?

Eta Satanas-ek (18 urtez ez, 40z baizik) lotarik zeukan Jainko Herri honi, ez al nizkion baina kateak askatu behar Bake Urte honetan?”

Gauza hauk entzutean, moralista eta zakar guztiak, su bizitan jartzen ziren; baina Herria oso zoriontsu zen egin zitzaion mesedeaz.

Amen

ADULTERA BATEN EPAIKETA

(Jn. 8: 3-11)

Behin batez, eskribauek, jesuitek, fariseuek, opusekoek eta abarrek, emakume adultera bat eraman zuten epaitzera Iruineko Hautitegi Nagusira.

Emakumeak, abokatu defendatzailetzat, Jesus bera eraman zuen (ez baitzuen honek askorik ko-bratzen, “amateur” antzean ibiltzen zelako lan-hauean. Arrazoa? Hirugarren urtera bakarrik hel-tzea lortu zuen Deustuan, eta hori gaez lan eginez, eta abar, eta espedientatua izan aurretik).

Eskribauek eta besteek, grabetate eta maiestate guztiz, honelaxe salhatu zuten:

— “Emakume hau, adulterio orgasmiko batean harrapatu izan da sakristianrekin. Eragure Kodigo Matxistak dioenez, andre honek “gorrote vil”a merezi du. Zuk zer diozu ba, Jesus?”

Orduan, Jesusak klariona hartu eta hitz arrar batzu (euskaraz, jakina!) idazten hasi zen gela e-dian, lurrean:

“NIK BEZAIN ONDO ZEUEN AMAL EZAGUTUKO BAZENITUZTE...”

Zer egiten ari zen eta Aita Generalak, “Kristiano” idazteko eskatzean Jesusek zutiturik esan zion:

“Zuetarik bekatu gabe dagoenak, bota diezaiola lehen harria”.

Eta berriz lurreratu eta idazten segitu zuen Orduan larri-larri eta buztana hankatartean zutela, inork ezer entzun izan ez balu bezala, txiki zeriela, hasi nagusienengandik eta guztiak komune-ra joan ziren.

Jesusen, zutiturik berriro, esan zion andreak:

— “Ea bada! Non dira zure akusatzaileak? Ez al zaitu inork kondenatu?”

— “Inork ez, Jauna!”

Eta berriz Jesusek:

— “Beno ba! Lan askorik ez dugunez izan, beste batetan ordainduko didazu. Orain joan zaituz etxera, eta kontuz! pentsa... ez da oso polita... senarra... adarrekin...”

Amen

Thomas Münzer

LITERATURA

eta zergatik jo nau antes de peibe se pone siempre eme esan du eta nik jarri dut ondo mpamplona eta gainera erori zait plumila baina ez egin dut negarra eta belarrian soinua tiii daukat eta ze bero ni naiz el número veintitrés eta daukat estutxea de colores.

Anaia edo eta gurasoen underwood edo olivetti zaharraz egunero, eta gauero bereziki, baliatzen garenok, orduero-minutuero agortzen gara, eta itotzen ere horrialde birjinaren aurrean. Hausnarketa laburrenak ere alferrik gabiltzala adierazten digu, ez due-la epigonia honetan ezer eskribitzen saiatzeak merezi, sarritan zertaz mintza ere ez dakigula. Lehorrak jotzen gaitu, epigoniaren lurrak lehor moeta sikuena-ren parabisu direla, non ez baitira jaiotzen ideia transformatzaile ahulenak, edo sinesmen, edo amets, edo utopia arrazionalenak, non biziera berrian ipinitako esperantza absurdu haurkoia baita. Antierrenazimenduaren sasoian kreatibitateaz baztertu egiten da eguneroko bizitzatik, eta pertsonak lehen principius vitaetik urrundurik jai, bizi eta hiltzen dira; eta ez da guretzat besterik nahi banku direktoreen arauera taxututako gizarte honetan. Civitate honetan, hemen eta gaur, Produkzioaren jainkosak zuzentzen ditu desbizitzak, eta lanean eta deskantsuan nahitaezko gurgil zoroan bueltaka dabila mende honetako gizona. Gaurdaino —Debord-ek adierazi digunez— kapitalak egunero hamar ordu lapurtzen bazizkigun, orain deskantsua ere bereganatu digute, kontsumuaren bitartez (1). Eugenio Trias-ek, bere azken saiakeran, (2) hau dio: egunero bizitzen den esperientzia da, produkzio arloaren eta desio arloaren arteko etendura, banaketa eta arrotasuna; erotismoaren mundu animiko eta subjektiboa (alde batetik) eta lanaren mundu zibiko eta objektiboa (bestetik). Artista, honela kreatibitatearen arauera bere bizitza moldatzen duen orori deituz, tenplutik bidalia izan da, Produkzioaren jainkosari bere fruituak eskaintzen ez dizkionez, eta hobeto esanez, eskaintzen ez dizkion heinean. Produkzioak ez baitu kreatibitateari behar, edo areago: zenbat eta gehiago makurtu kreatibitatea, hobe beretzat. Moloch-ek aski du obedientziarekin, alienazioarekin, erroboekin, eta alderantziz, bai kritikak, bai sorketak, bai orijinaltasunak itzali egiten dute bere sua. Mila eraz deuseztatzen du artista, eta normalena, itotzearen bitartez, ttiki ttikitandik axfisiatuz giza-ahalmen hori, eta artista "profesionalen" kasta ondorioz sorterez. Eta kasta honen asimilaketa izaten du bigarren lana. Eta hirugarrena, ez ito eta ez asimilatuakoen baztertzea, tenplutik botatzea.

Tenplutik at —barka hirugarren kategorian geure burua ipintzen dugunoi, oraindik ilusio batzuren jabe garen seinale —ez da erraz ofizioaren arrazoia bilatzea, eta ez da erraz arrazoi hori gabe aurrera segitzea. Aurrera edo atzera, zaila mugitzea baita. Esate batetarako, gaurko literaturak azken kanta suspiriatzen ari den zisnea dirudi, hori diote ezezkorrenek.

(1) Gay Debord. La sociedad del espectáculo. Castellote Editor (ez da euskarazko itzulpenik).

(2) Eugenio Trias. El artista y la ciudad. Editorial Anagrama (ez da euskarazko itzulpenik).

Nobela krisian dagoela, teatroa krikrisian (hots, krisi hitz motelean), pintore modernoek berek ere sinesten ez dituzten erroilo makabeoak kondatzen, eta hori bai, manifestu pila izenpetzen (beren ofizioetan aurkitzen ez duten komunikazioa eta identitate soziala bilatu nahiz edo), eta eskritoreok beti nigarrez deitore murrubatetik bestera, irudimenaren hamaikagarren frakasua, eta kultura, eta antiekultura, deskultura eta kontrakultura, eta Jaun Goikoa eta Behekoa, kalonjea knock-out bigarren asaltuan, artikulista —ni— begiokerra, aingeru bat aingeru bi, sagutxu sagutxu, eta trenak pasatzen eta trenak pasatzen, ez merkeena bai onena, eta lau kilo eta piku pisatzen dugun euskal idazleok, behiari kentzen zaion beroarena guri kentzea ahantzi zaielako noski, jakina: nola ez.

Sentimendu hau, xibaren jirabirak direla gure pausoak eta ez hobeagotze historikoan kaketzen direnak (Xirinacs-ek "Sujeto" deitu liburuan biologikoki ere demostratzen duen hobeagotzea, bestalde: Kristautasunak ekarri zuen baikortasun deuseztaz, "eror lain eror" horren adibide paregabea) nahikoa hedatuta dago, eta egon da. Ba dira, adibidez, ezinari buruzko koblak gure herriaren baitan: pipa erreta txoratzen naiz ardoa edanda mozkortzen naiz gorteiatzeaz lotsatzen naiz nola demontre biziko naiz

Beste hitzetan esanda: ezin dut eraman neure desioen arauera taxututako bizitza, nola hostia biziko naiz. Eta kataluniar aitona batek esaten zuena: nor ez da, sikira behin bere bizitza guztian, anarkista sentitzen?...

Orain arte esandakoak jeneralean esan ditut, baina jaiotzen naizen komunitateari zelata egiten badiot, (zelata bakarrik badaezpada ere, ipurdia salbu utziz) ez da erraz kontsolagarriekin topo egitea, Xenpelar bera ere ez da ageri Pasaiako festak kondatzen, eta tamalgarria da. Hemen ere artistak tenpluaren kanpotik ari dira, eta kulturlangileak, basekoak edo, beste base batzutara pasatu dira, eta zenbait senatore eta guzti egiteko asmotan dabila. Bizitza kulturala, autobide ertzeko telefonoa bezain isladatu eta pobre ikusten da, hala dirudi. Hala dirudi pedagogei, hizlari, artikulistei eta abarrei entzun eta gero, baina daturik ez dugu, behin ere ez da izaten beharrezkoa den datua, benetan gizarte misterioitsua da gurea.

Hala eta guztiz ere, galdera hau egiten nieke, bueno, nizueke: Euskal Herrian, politikarekiko polarizaketak egoera subkultural batetara ahal garamatza?... inork erantzun nahi balu, kita ditzala bere burutik bi ideia: bat, ba dakigula denok politika ez dela gela estanko bat, baietz, ba dakigula hori, baina tautologiak —eta hori kristorena da, zuria kolore eza dela esatea bezala— ez digula ezer argituko arazo horri buruz. Eta bi, ba dakigula ere, euskaldunok boterea hartutakoan, eta abar, kristorenak eta bi egiten ditugula, bai ene, kristorenak eta bi egingo ditu-

gu guk begi kliskatze bakarra dela medio, birlibirlokeren arteaz baliatuz. Baina ez dugu hori sinesten, eta fedezko artikulua irensteko adinean ere ez gaudede. Beraz, planteiatzeko beste zerbait.

Eta hauk ziren ene pentsamenduak Koldo Izagirrerren liburua eskuratu nuenean. Eta berehala irakurri nuen.

Bai, berehala irakurtzen da liburua, eta zaila da irribarre konpliztea expainetatik kentzea amaitu bitartean; Koldoren idazkera delikatu, ia poetikoa, hitz lauz ere eta estridentziarik gabekoa, lagun bihurtzen da bidaia laburrean.

Liburua, flash moduko apunte literariak osatuta dago, eta azkenekoak, haurtzaroaren munduaz, formaren aplikazio exaktu batez eginda daude, eta irakurtzen direnean idazlearen mundua dastatu ezezik, norberarena ere dasta daiteke, irakurle bakoitzak bere mundua ikus dezake apunte horiek osatzen duten bola magikoan. Ene ustez, denbora luzeagoan ihardun behar zuen Koldok lan hau burutzen, eta lan zabalago bat eskaini; liburuaren haria hizkuntzarekiko jokuan bakarrik bilatu beharrean, batasun tematiko bat ere moldatuz, haurtzaroari buruz luzatu eta luzatu, bola magikoa ezezik, ispiluzko palazio berbera ere egin arte.

Baina honek ez du esan nahi, beste parteak, adolezentzian kokatzen direnak —edo adolezentzia hilezinean bizi direnen erretratu direnak— eta “Gezurretan” saileko bigarrena, esate batetarako, gutiesten ditudanik. Haik, makina bat erredakzio eskatu izango dituzten textuak, katxondoak eta alegrantzia handikoak dira, baina ez dute hainbeste konpenetratio aurkituko irakurlearengan, niri behintzat hori gertatu zait; “Gezurretan” sailekoa berriz, elipsiaz baliatuz bertsolaritzan bezala, textu irekiaren exemplu da.

Liburuaren parterik ahulena “Ahariketa” delakoak dirateke.

Rimbaud-ek esan zuena, hots, ni beste bat naiz, literaturaren sorketari buruz esan diren eritzien arteko hoberenetakoa deritzot. Literatura, mila aurpegitako hiltzaile hura bezalakoa da, eta nahitaezkoa du “beste” bihurtzea, bere Hegoa apurtzea izan dena eta ikasi duena bere burutik kitatuz. Burroughs-en hitzetan esatearren, “errezeptibitate huts” batetan ipini behar da sorketaren garaian, mundua jaioa berriaren begi berberekin ikusi ahal izateko, sentsibilitatez eta injenuitatez errealtate arrazionala ez den beste bat hatzeman. Helburua, totalitate zentzuaz jabetzea izanen litzateke, heltzea ikusmira batetara non gauza guztiak harremanak baitaude, eta hau honela bada, literatuak eta mistikoak ba dute paralelismoak; baina literatuarenak joanetorriko bidaia behar du izan, gero gauzatu egin behar baititu ikusitakoak, hizkuntzaren materialez baliatuz.

Beste honetara heldu diren artistak nabarmenak dira literaturaren historian: Rimbaud, edo Lovecraft, Blake bisionaria, eta abar. Eta askotan, baina ez derrigorrez, drogari lotuta joan da lorketa hori. Eta

euskaraz ba da kontzeptu hori jaso lezakeena ere, eta “buruaz beste egin” delakoa da, oso berezia deritzot suizidatu esateko modu honi. Eta bertsolaritzan, Justo (hori al zen bere izena,...?) bertso aldrebresen egilea (eta aldrebresaren fenomeno gutia, hain zuzen) betidanik jo dut azterketa gai ontzat.

ZERGATIK BAI



Koldo Izagirre

Eta Izagirrek, bueltatxo bat eman du bere haurtzarotik, eta hizkuntzaren manipulaketa dela medio adierazi du han bizitutakoa, jostaketan bezala (eta jostaketa ez al da umearen bizigailu egokiena?) euskara bantua eskemak hautsiz. Leku ederrean gelditu dira Euskara Misterraren zerbitzuan literatura ipini nahi dutenak.

Eta Euskara aipatu dugunex gero, permiti bekit hitz pare bat horretaz. Euskara ez da bakarrik hizkuntza landugabe bat, gaurko eta atzoko linguis-tei esker burualtxatzen ari dena, mundu berriari egokituz edozein gauza adierazteko gauza bihurtu dena. Oraindik ez. Nahiz eta honetan makina bat kontrari izan, aspaldidanik defendatzen dut euskararen erabateko gaitasun eza, eta “euskaraz dena esan liteke, edozein gauza adieraz, dena daukagu hemen, behar den guztia beste lekutan bezala idaz-

teko, eta espresatzeko" hitzaldietan eta entzun du-
danean (Arestiren heriotzeko urtehurrenean, azke-
nengo aldirik) kontra atera izan naiz. Eta arrazoi-
a ximplea da, eta silogismo batez adieraziko dut:

Literaturaren mugak hizkuntzarenak dira
(Euskal literaturarenak, euskararenak)

Euskarak ez ditu betetzen errealitatearen arlo
guztiak

(ez du, adibidez, argot askorik sortu)

Ezin daiteke ongi espresa errealitate estaligabe hori
(ezin da horretaz euskaraz idatzi)

Ez da euskararik, adibidez, boxealarien edo la-
purren edo puten edo hirietako gau bizitzaren
errealitatean, eta ezin da gaurkoz mundu horietaz
mintzatu kalitate minimo batez. Sinesten ez due-
nak ekin bekio, zergatik ez, Cortázarren "Torito"
ipuinaren itzulpenari. Eta egitea lortzen badu —ka-
litatez, itzulpengaiaren zentzu guztiak hatzemanaz,
jakina— sinestuko dut. Behar bada, beste zerbait es-
katuko diot gero, heroína junkien giroan desarroila
tzen den nobela osatzeko. Eta hori ere burutzen
badu, adoratu egingen dut belauniko, Mahoma bera
dela sinestuz.

Ene ustez, euskaraz idazten jarri ginenean ka-
rrile batzutan kokatu ginen, eta zenbait ate alde-
z aurretik hertsirik genituen.

Euskaldun asko oso ponpoxo badabiltza ere,
komeniko da noizean behin sikira problema batzu
argitara ematea. Bestela, pixka bat deskuidatzen
bagara Euskadi Ofizialekoak (Euskadi Moñoña-ko-
ak) munduko hoberenak garela sinesteraziko digu-
te, hasi diru eta hasi direla, hemen beti izan da fun-
farroi asko. Eta liburu bat aipatuko nuke, baina ez
dut txintik ere aterako. Ez pentsa Izagirreraren lanaz
ahaztu naizelarik. Aurreakoa irakurri eta gero, zen-
baitek konpreni dezake haren beste meritu bat, eta
hori da, euskararen posibilitate ustegabea adierazi
digula, haurtzaroaz haur batek bezala hitz eginez,
honen hizkera berberaz, sinestea batere kostatzen
ez zaigula. Ez da kasu honetan beste nobela askore-
na gertatzen, poliziakoetan gertatzen den —edo ger-
ta daitekeen— bezala; protagonistak "...salbuespen
dateke, baina erhailearen ahurren ikerketak..." esa-
ten duenean oso zaila gertatzen zaio bati inspekte-
rea eta alfabetatze taldeko zuzendaria pertsona ber-
bera direla onhartzea. Aldizkari honetan bertan ar-
gitaratu diren elkar hizketetan ere antzeko zerbait
gertatzen da, itzuliak edo eta korrejituak izan dire-
netan bereziki, faltsuak goitik beheraino, errobot
bati egindakoak diruditela.

Normala izanen da noski, batuaren sasoian,
hizkeren problema sortzea. Baina problema da.

Eta Koldoren lanetan ez da hori gertatzen;
Koldoren umeak ez du esaten "ahal baneza, harra-
patu eta janen nuke" nahiz eta hau izan euskara ba-
tuak agintzen duena. "Gehiago gustatzen nau man-
tekila" esaten du, eta normala da, niri ere gehiago

gustatzen zait mantekila.

Koldoren lanari aurkitzen diodan ezik grabe-
na, fabula eza da, istoriorik eza. Ez dut uste kalte-
garri litziiokeenik ipuinaren elementurik naturale-
na (geure amonek, oheratzen gintuztenean, istorio-
ak kondatzen zizkiguten, Caperucitaren bertsio es-
trafalariak eta abar), erabiltzea. Hizkuntzarekin ma-
nipulatzeko duen trebetasunarekin batera, gorpu-
tz ederreko horrialdeak eskain daitezke, eta eskai-
niko ditu, zihur naiz horretaz.

Gehiago gustatuko litzaidake hori Koldoren-
gan, "école du regard"-en tekniken erabilketa bai-
no (nabaria, "zergatik bai" saileko VIIgarrenean),
baina jakina, hori bakoitzak ikusi behar du, denok
ditugu geure mania eta amoreak.

Eta jaunok, gaurkoa ere bukatu dugula. Hu-
rrengorarte, Kortabitarte.

bernardo atxaga



Txalagarria, beti pentsatu
dugu txalagarria dela literaturaz-
ko aldizkari bat egitea; edo eta li-
teratura egiten duen aldizkari bat
egitea Txalagarria dela. Hemen
duzue Mermelada Ustelaren aza-
la, Panpina Ustelaren ondorioz
datorkiguna. Eta, hona lerrora-
tzen dugu agur bero batekin. 125
pta. balio du eta edozein liburu-
dendatan eros daiteke.



KRITIKA

Joan den Maiatzaren hasieran Erramon Zumalabereren erakusketara hurbildu gara. Hobe esan, Erramon hurbildu zaigu plazaratzean. "Etxe-Arte" aretoan zintzilikatu dizkigu lanak. Erakusketaren azterketa egiteko, egilearengan, gaietan eta teknikan oin-harritu beharko gara, ene ustez; beste hitzetan esanez mezulari-mezu-entzule dinamikapean.

Begiak zabalik, geu izan gara entzule (ikusle). Askotan, bai kasu horretan ere, artista bera ezagutu beharrean aurkitzen gara (mezua ulertzeko laguntza handia ematen baitigu). Erramonen arte esperientzia berezia izan da. Berak esan duen bezala, langileriari, "herbesteari" marrazkiari, Euskal Herriari lotua. Begiak eta eskuak ez dauzka indar hauetatik kanpo, artea esperientzia oso bat bezala ulertzen baitu. Ez du hizkuntza zailik erabiltzen. Marrazkia dela medio sentiberatasun pertsonala agertzen zaigu koadroen leiho zabaletatik. Bai, koadroak, egileak bezala, sentiberatasun berezia daukate (Erramon bera agertzen zaigu). Marrazkia (irudikorra) hautatu du. Gorputz adierazpena gogoz, indarrez, azaltzen digu. Formak interesatzen zaizkio baina zerbait esateko beti. Eta formak (emakume-gizon formak) paisaian, inguruan integratzen ditu beldurrik gabe. Eta hortik (horrexegatik) paisaiak, pertsona batek bezala deitzen dio eta berari lotzen zaio eta murgiltzen. (Azkenean Bermeo pertsona baten gorputza ez ote?).

Erabiltzen dituen gai eta teknikak ezberdina dira. Bitan banatzen direla esan dezakegu. Ez da erakusketari batasunik eman. Beharbada, hauxe izan da (forma aldetik) mezua ulertzeko oxtopo handia. Beste batetik ez zait koadroen ordena, muntaketa gustatu. Saltoka ibiltzeko arriskuan uzten gaitu. Lanak (buruz) garai ezberdinetakoak direla esango nuke. Hala ere, ene ustez, teknikak jotzen dio, indarrez, begiari. Lohidurak, tramak, geruza gardena bata besteen gainean erabiltzen ditu trebeki. Estetikak mailan ondorio interesgarriak lortzen ditu. Leherurratsak direla esango nuke (oraindik gutti lortu duak?) baina bide berri bati begiratzen emandakoa. Koadroen kalitatea ezberdina, ikerpen aldetik planteiatu daudenak guztiz interesgarriak. Modu horretan sikoiz planteiatu dituen paisaiak ez dira hain konplexuak. Bermeo "hori" hori, uretan ikusten den lohidurez, bernizez, sentsibilitatez egina, benetako deigarria.

Gai sozialei ez die uko egiten, eta saio hau behar hartu behar dugu. Amnistia (emakumearekiko ere) hor dago. Koadro handietan nahiz eta gailuetan xamarra ikusi (neurri bila ibilki ote?) murriztu mailan arduraturik, esku indarturik ikusi dugu.

Laburki esanez, ikerketa eta ezberdintasun planteiatuiko erakusketa kezkatu (kezagarri) da.

Antton.



ASOCIACION CULTURAL

EL DESVAN

KULTUR ELKARTEA

Alda. Urquijo, 52 - 2.º - Tel. 441 53 30 - Bilbao

EL DESVAN Kultur Elkarteak bere taldeetarik baten bidez (EL DESVAN PHOTOGRAPHI TALDEA) Photographi eta Arte Plastikoen Erakusketa bat eragin du, ASKATASUNA, AMNISTIA, AUTONOMIA gaiaz.

Ekainaren 12an (igandez) Plaza Berriko erdian jendarteari begira Erakusketa ospatu zen, neurri handiz joenez eta interesa piztuz.

HERRI BOZKETAN (egitarauan baitzegoen) jende joaleak Ohorezko Aipuak eman zizkien, beren gai-hondo eta kalitate plastikoaren arteko koherentziagatik gaingaineoak, jendartearen aburuz, ziren obrei.

Golarδοatuok izan ziren:

PINTURA: ERRAMON ZUMALABE

MARRAZKIA: GONZALO MURILLO

KOLOREZKO ARGAZKIA: FERNANDO BLAN-
GO KARRANTZA

Z-B.ezko ARGAZKIA: COLECTIVO IMAGEN

Erakusketaren helburua:

EL DESVAN Kultur Elkarteak, bere funtzio behinena gizartearen barnean kulturaren barreia-kuntzari zerbitzatzea dela ikusiz, deialdi hau eratu du, gure Herriaren herri arrenkuren adierazpide graphikoen ibilgailua izan delako esperantzaz.

EL DESVANen talde batekin zenbait merkatal erakundetatiko dirua lortu da, lehenik, txartel, oinharri, botupaper eta besteen inprimatzeko; gero, arte diziplina diferentetarako lan materialea erdiesteko, zeinekin, nolabait ere, artisten partzuz-ergoari esker emateko nahi izan baita.

Jendartean dirau Erakusketak, Uztailaren erditsurarte, Elkartearen lokaleetan 6etatik 10etara. Damutxo dugu osorik ez egotea, azalaketaren egunaren arratsaldean curia aritu zuenez gero, zenbaitzu artistak beren obrak eraman baitzituzten.

EL DESVAN

Alda. Urquijo 52, 2.- BILBAO



ASKATASUN IBILKUNTZA

Euskal Herria, jaiki hadi
ta eman hadi bidean
Erreka ondoan jarriko haiz
argi-hastea sortzean

Ibil ta ibiliz ibilian
aurkitzen baduk "Askatasuna"
esango diok geure Herria
bidez bide bere bila dabilela

Euskal Herria, jaiki hadi.....

Geure haurrok lapurrak balira
biziko lirake jauregitan
Baina Herria maite dute-ta
usteldu beharko burdinen artean

Euskal Herria, jaiki hadi.....

Neure seme bakarra
Burgosen daukat ilunetan
Neure alaba zaharrena
etxetik joana igesitan
Geure gizona izana
Soiluben jausia odoletan
Baina ez dut negarrik
irabazi nahia baizik
Baina ez dut, ez dut negarrik
irabazi nahia baizik

ASKATASUN IBILKUNTZA

Hauton Olaso'ko Telesforok

ESTROFILLA

7. 1. 2. 3. 4. 5. 6. 7. 8. 9. 10. 11. 12. 13. 14. 15. 16. 17. 18. 19. 20. 21. 22. 23. 24. 25. 26. 27. 28. 29. 30. 31. 32. 33. 34. 35. 36. 37. 38. 39. 40. 41. 42. 43. 44. 45. 46. 47. 48. 49. 50. 51. 52. 53. 54. 55. 56. 57. 58. 59. 60. 61. 62. 63. 64. 65. 66. 67. 68. 69. 70. 71. 72. 73. 74. 75. 76. 77. 78. 79. 80. 81. 82. 83. 84. 85. 86. 87. 88. 89. 90. 91. 92. 93. 94. 95. 96. 97. 98. 99. 100.

ESTROFAK: 1.

ESTROFAK: 2.

ESTROFILLAK "BIN" ABETE

ESTROFILLAK "BIN" ABETE



Datorren udari begira, Euskadiko Askatasunaren ibilaldia prestatzen ari dira. Beren antolatzailleek: Euskadiko Askatasunaren Ibilaldiaren aldeko Komisio Gestio-gileak tresna bat publikatu du, eta bertan, Ibilaldi honen kantua jartzen da, Monzon Olaso'ko Telesforok egina eta "Askatasun Ibilkuntza" deritzona. Gure atal txiki honetan ere bere doinua eta hitzak nahi ditugu ipini, udako kanta izango den gaia Euskal Herri osoan zehar zabalteko.

JAIALDIAK

UZTAILAK 1etik 15era

1 SOPELANA

Pilotalekuan Setan:
Hibai Rekondo
Xiker

1 OINATI

Zubillaga hauzoan. Pilotalekuan:
Jokin eta Josu

1 MUNDAKA

Pilotalekuan 10etan:
Gorka Kiñorr
Bultz

| | | | | | |
|---|--------------|--|----|---------------------|---|
| 1 | ELGETA | 10etan:
Errobi
Urko
Nerea Gaztelurrutia | 8 | AZPEITIA | Zineman 9etan:
Errobi |
| 1 | BERRIZ | Elizondo enparantzan:
Ruper
Joseba Etxebarria
Jon Bergaretxe | 9 | BERGARA | Enparantzan 9'30etan:
Maite Idirin
Joseba Etxebarria
Xiker |
| 2 | ERANDIO | Arriaga hauzoan. Enparantzan 8etan:
Jon Koldo Larrañaga
Lupe
Nerea Gaztelurrutia | 9 | IGELDO (Donostia) | Pilotalekuan 10etan:
Jon Bergaretxe
Josu Goya
Jokin eta Josu |
| 2 | LAUDIO | Pilotalekuan 8etan:
Koska
Jeiki | 9 | OTXARKOAGA (Bilbon) | 9'30etan:
Hibai Rekondo
Izukaiz
Maite Idirin |
| 2 | BEIZAMA | Enparantzan 10etan:
Xiker | 9 | ZALDUN | Enparantzan 10etan:
Gorka Kñorr
Xeberri, Asier eta Aitor |
| 2 | ERRAZU | Enparantzan 11etan
Maite Iridin
Oskorri | 15 | ZALDIBAR | Pilotalekuan 10etan:
Urko
Nerea Gaztelurrutia
Gontzal Mendibil |
| 2 | ELANTXOBE | Pilotalekuan 9etan:
Txomin Artola
Haizea | | | |
| 2 | BEASAIN | Arriaran hauzoan:
Xiker
Gontzal Mendibil | | | |
| 3 | IBARRURI | San Pedro enparantzan
8'30etan:
Joseba Etxebarria
Kepa Urkizu
Izukaiz | | | |
| 3 | OINATI | San Pedro enparantzan 7etan:
Pantxoa eta Peio
Jokin eta Josu
Xiker | | | |
| 3 | ARRANKUDIAGA | S. Pedro hauzoan 6'30etan:
Jon Koldo Larrañaga
Gontzal Mendibil
Nerea Gaztelurrutia | | | |
| 3 | GASTEIZ | Mendizorroza kiroldegan
10'30etan:
Koska
Indar Traber
Jeiki
Errobi | | | |
| 8 | DONOSTIA | Kiroldegan 10'30etan:
Miren Aranburu
Lupe | | | |


T E L E B I S T A
FOLOTECNICA

Zerbitzu Tekhnikoa (Zuri eta beltza, koloreduna)
Koloredun Telebistan berezituak

Atzerriko Markak:
GRUMDIG
TELEFUNKEN
PYE (Ingelesa, e.a.)

Merkatal etxea:
Felipe Sanz Paracuellos s/n.

TE LF. 4 4 7 5 4 5 5
BILBAO - 14



ANAITASUNAREN Zuzendari
jauna:

Zuen aldizkarian (340. zenbakian) hitz harrigarri hau irakurri ditut: "Armadoreen mafia PNV-JELTZALEA ote?" eta konparaketa behin eta fuertean eraikitzeko, Chicago eta Ondarroa xista berean nahastean duzute. Egia da bai "ote" eta bai "omen" hizkiak ornitua argitaratzen dututela zuen "Pulitzer"-gai hau. Hots, zuek erdi-erdian geratzen zarete ez "baietz" ez "ezetz" esanaz, duda-muda dotore hori haizean zintzilizka gelditu zaigu.

Eta aurrerago gaitzen jarria.

Piñarista kutsua ere JELkideak dugula! Olé!

Mila esker, gizon argitsuok, gizon BATASUNzaleok, gizon "errespetu minimoa" gordetze-ko prestuok!

Nik ez dut Ondarroako Uri Buru Batzarrean eta haien alderdikideen maila soziala eta izateko manera ezagutzen, baina bai geure herriarenak eta bai beste Bizkaiko herri askorenak, eta geure herrian, Karrantzan beintzat, "JELkide" famatu hau langileak, nekazariak, delineanteak eta abar direla esango dizuet (eta koño! teorik ere ba dugu!).

JEL alderdia gizon-emakumeek osatzen dugu, eta gizonen zein emakumeen artean jende ona eta jente txarra gaudela esan

dezakegu, baina txarrok eta onok berez izaten gara eta ez JELkideak garelako.

Ez biur, otoi, zuen aldizkaria "libelo" batean. Vale.

JOSE MARI ALIX TRUEBA
LA CONCHA 71
KARRANTZA
BIZKAIA

Lazkao 1977 Ekainak 6

Agur adiskide zabalok, agur t'erdia!

Direla zenbait hilabete zuen aldizkaria ezagutu nahirik arpidedun egin nintzan. Izan ere nere zenbait lagunek eta bereiziki irakasle batzuek bultzatu ninduten aldizkari hau artzera, Euskal Herriko buruauste edo zuek diozuen bezala problematikari sakon jarduten eta kezkatzen zelako.

Asiera batean atsegin egin zitzaidan aldizkari hau, gainera hizkuntza aldetik beste herri batzuen posturaz jarduten zen, esate baterako Israelgo mirariak.

Baina gero konturatu naiz ANAITASUNA eta kofradikoei Israelgo mirariak ajola gutxi dizuela, bestela hizkuntza herrikoia go batez mintzatuko zinateke gure herri xee honi.

Bai xeetasunez asko hitzegi-

ten duzute baina ez duzute ezer asko jakin nahi herri xeearekin bestela Israelgo mirariak inguruetako zinateke eta ez publikatu bakarrik itxura on bat ematearren.

Publikatzea ez da aski, mirariak segitu egin behar dira, horrelakoak beintzat. Baina orain ezagutzen gara, adiskideok!!!

Beraz, hilabete batzuek igorero ondoren arpidedun izateari uztea pentsatu dut, ez uste egun bateko beroaldiaren ondorena izan denik. Postura hau artu behar izateak edo bultzarazteak benetan samindu eta atsekabetu nau, baina ez zait ajola, baduzkete oraindik Euskal Herriak aldizkariak, ez uste zuen eskuetan dagoenik dena adiskideok!

Uste dut lehen ere naustzaile aski bagenuela gure herrian zuek ere asi gabe.

Nahi baduzue oitura duzuten bezala azkeneko horrialdean "urrezko astabelarriak" deritzan tokian publikatu edo argitaratu nere eskutitz hau, ez zait ajola, eznauzute lotsatuko. Lasai multok, beharbada edo baldin baduzue zuek lotsatu behar zendukete.

Besterik gabe agur. Orain ezagutzen gara!!!

Izena: Edurne Mujika
Zuzenbidea: Elosegi 64, 4
Herria: Lazkao

VILLABONA-KO IKASTOLAK
hiru irakasle behar ditu. Nahi duenak dei beza

Tfo. 69 18 49

ONDARROAKO ZUBI ZAHAR
IKASTOLAN

—Zuzendari bat
eta

—Euskaraz bakarrik arduratuko den irakasle bat.

BEHAR DIRA
77/78 ikastarorako.

SEXUAL HARREMANAK I: ANTISORGAILUAK

Emakumeok ez dugu inoiz, geure sexualitatea libreki bizitzeko eskubiderik izan. Beti erakutsi digute, gure sexual harremanak helburu bezala zera zute-la: amatasuna eta senarraren atsegina. Helburu haue-tatik at sexualitatea ukatu egin zaigu, gure gorputza-ren bidez plazerra lortzeko modu bat denez. Atsegin hau eskuratzeko, emakumeok gaur egun, mila zailta-sun aurkitzen ditugu; alde batetik, jaso dugun hazie-rak, bekatu larri bat bezala agertu digu gure gorpu-tzaren ezaguerari dagokion guztia; eta bestetik, gizo-nezkoekin sexual harremanak eramateko, arazo handi bat topatzen dugu beti: BELDURRA, eta ba-tez ere, umedun geratzeko beldurra. Lehen ez ze-goen hau gainditzeko ahalbiderik, baina orain bai. Zientziak asko aurreratu du gai guztiei buruz, eta umerik ez izateko bideak ere lortu ditu. Honek, emakumeoi, geure gorputza kontrolatzeko ahalmena eskaintzen digu, hots, harreman libreago batzu era-mateko posibilitatea.

Hala eta guztiz ere, ahalmen hau oso erlatiboa da, zeren instituzio errepresiboek hor diraute eta, antisorgailuen ezaguera eta erabiltzea hertsatzeko.

Konkretuki, espainiar estatuan, egoera hau larri-tu egin zaigu, 40 urte hauetan zehar, Estatuak, Eli-zak, legeak, familiak, etb. izan duten zereginaren ondorio bezala. Adibide batzu ikus ditzakegu, senda-gile, soziologo, apaiz, etab. "errespetagarrienek" esan duten gauzak aztertuz.

López Ibor-ek zioenez, "arazo handiena ez da antisorgailuena, baizik eta hauek dakarten ondorioe-na, hots, masturbaketa, abortua, adulterioa eta ho-mosexualen arteko harremanak" "Real Academia de Medicina"ko presidentek: "Abortua, Jaungoiko-rik gabeko mundu batek dakarren, indibidual eta ko-lektibo egoismoaren ondorioa da".

Beste aldetik, legeak, antisorgailuak fabrikatzea, saltzea eta beren gain informazioa ematea, "arresto mayor" eta 5.000tatik 100.000 pezeta arteko mun-daz zigortzen du.

Baina Estatu mailan izan dugu, emakumeari as-katasun handiago bat ematen zion lege baten adibi-dea, eta hau, Catalunya-ko "Generalitat"-ek jarri zuen abortuaren gaineko legea izan zen. Lege honek, antisorgailuen erabiltze librea eta abortuaren legali-zapena agertu zuen. Baina hau, Catalunya-ko histo-ria bat izan zen. Gure egoera oso desberdina izan da eta larri dirau.

Beharrezkoa dirudienez, hemen, nahiz laburki egin, antisorgailuen eta abortuaren gain, informazio bat emango dugu.

Antisorgailuen artean, ezagutuena eta eztabai-datuena, PILDORA da. Zer eginkizun betetzen du pildorak? Normalki, emakumearen gorputzak, bi hormona moeta ekoizten ditu bere hileko zikloan, estrogenoa eta progesterona. Zikloaren bostgarren egunean, gorputzean estrogeno gutti dagoenean, beste hormona bat sortzen da, FSH izena duena. Honek, arraultzaren haziera ekoizten du arraultza-tegi barruan. Pildorak egiten duena hau da: estro-genoa gorputzean sartu zikloaren hasieratik eta ho-rrela ez da FSH-rik sortzen eta FSH-rik gabe ez da arraultzarik hazten; arraultzarik ez izatean, gizon-aren espermatozoideek ezin dute noski ezer ernaldu, beraz, ez daiteke umerik egin.

Progesterona sintetikoa, bi eraten erabiltzen da pildoretan: Batzutan, lehendabiziko 15-16 egu-netan estrogeno hutsa hartzen da eta azkeneko bost egunetan, estrogeno eta progesterona kombina-keta bat. Beste pildora moeta batzutan, 20-21 egun artean konbinaketa bat hartzen da. Hau, lehengoa baino hobea da, ezen pildorak dakartzan biga-rren mailako ondorioak, estrogenoaren eginkizuna-gatik izaten dira gehienak. Honela, progesteronare-kin nahastean, hau guttiagotu egiten dira eta na-hiz arraultza hazi eta ernaldua izan, ez daiteke umontzian ezar, progesteronaren eginkizunari es-ker.

Pildora konbinatu hauk, esan bezala, 20-21 egun artean hartu behar dira, geratzen diren 7-8 egun horietan, hilekoaldia etortzen da. Efektibota-suna, esan daiteke osoa dela, ahaztu gabe hartzen badira. Bi egun edo gehiago igarotzen baditugu hartu gabe, posible da umedun geratzea. Pildorare-kin hastean, hobe da beste antisorgailu bat batera erabiltzea lehenengo hilean, bai eta beste pildora moeta bat hartzen hastean ere. Umedun geratu nahi izanez gero, aski da pildora uztearekin. Arraul-tzategiak lan egin gabe denbora luzean egon dire-nez, beharrezkoa da hil batzu igarotzen uztea pil-dora hartu ondoren, ume bat sortu baino lehen.

Askok hitz egiten da ere, pildorek dakartzaten arriskueta. Zeintzu dira arrisku hauk eta zeintzu emakume dira pildora hartu ezin dutenek?

Odol zirkulapenari dagokionean, dirudienez, pildorak odolbatuak sor ditzake. Hau benetako arrisku bat da eta garrantzizkoa da, hartu baino le-hen eta hartzen duen bitartean ere, medikuak ema-kumeari aldizka odol azterketak egitea.

Gibela gaizki duen emakumeak, ez dezake pildorarik har hau sendatu arte, ezen gibela da lan



egiten duena progesterona eta estrogenoaren metabolismoan.

Esnea ematen ari diren emakumeek eta "fibrosis cística" dutenek, ezin dute inolaz ere pildorarik hartu.

Pildorak kantzerra sorrerazten al du? Ez dago hau gertatzen denaren frogarik. Hori bai, kantzerra gorputzean bertan baldin badago, estrogenoak gaiztotu egin dezake. Beraz, garrantzizkoa da, pildora hartzen hasi baino lehen, umontzia eta bularrak medikoki aztertzea.

Pildorak, umeentzat kalterik ekar al dezake? Dirudenez, umeentzat ez dakar inongo ondoriorik, orain arte aztertu diren kasu guztietan.

Diabetesa, buruko minak, epilepsia, asmena, eta zirkulapen txarra duten emakumeek, kontu handia eduki behar dute, pildora hartzean. Beharrezkoena beti, medikuarengana aldizka joatea da, berak dena ondo doan ala ez ikus dezan.

Osasun oneko emakumeak, pildora hartzean, medikuntz azterketa bat egin ondoren, gehien komeni zaiena hartzen badute, ez dute bigarren mailako ondoriorik sentitzen normalki. Beste emakume batzuk berriz, goragaleak, nekea, hilezkoaldiaren kantitate aldaketa, bularraren zabaltzea, pisuaren handipena, buruko minak, maginitisa, sexual erantzunaren aldaketa, zokogunea, eta horrelako gauzak nabaritzen dituzte lehenengo hiletan. Gaitz hauk hiru hilabetean gainditzen ez badira, beharrezkoa da medikuarengana joatea, ezen ba daiteke beste pildora moeta bat komenigarriago izatea.

Orain arte, pildoraren arriskuak besterik ez dugu ikusi eta dituen hobariak ere asko dira. Bate-tik, sexual harremanen berezotasuna osoki errepetatzen du eta hauk askatasunez eramanez daitezke

aurrera inongo beldurrik gabe, ez baitago huts egiteko arriskurik! Honek, gehien psikologikoki, garrantzi handia du osasunerako. Fisikoki ere ba ditu bere hobariak pildorak, estrogeno asko dutenek "aknea" sendatzen dute, eta guztiek, hilekoaldia- ren kantitatea guttiagotu egiten dute eta minik gabe igarotzen dira egun hauk. Gainera, lehen ikusi ditugun ondorio txar guztiak, umedun geratzen direnek gogorkiago softritzen dituzte, zeren kasu honetan, gorputzak estrogenoa eta progesterona sortzen baititu, pildorak sintetikoki sortzen dituen bezalaxe, baina maila handiagoan... Beraz, bakoitzak egin dezala bere aukera!

Guttiago ezagutzen diren antisorgailuen artean, ESPIRALEA dugu. Plastikoz edo metalez egindako muelle edo espirale bat izaten da. Espirale hau, umontzian sartzen da, hari bi maginatik atuzten direlarik. Nola betetzen duen bere eginkizuna, oraindik ez dago oso garbi, teoria asko baitaude honen gain. Efektibotasun aldetik, hutsak 2 o/okok izaten dira, beraz, pildora ondoren, metodorik zihurrena hau dugu.

Arrisku bezala, sexugaitzak harrapatzeko erraztasun handiago bat izaten da, espiralea erabiliz gero. Batzutan gertatu da, espiralez umontzia zultu egin dela, baina oso kasu guttitan eta beti, gaizki ezarria zegoelako. Horregatik, beharrezkoa da mediku bat izatea espiralea jartzen duena. Pildoraren aurrez duen hobaria hau da: bigarren mailako ondorioak genitaletan geratzen direla eta ez dute gorputz osoa ukitzen, beraz sortzen diren gaitzak sendatzea, errazagoa da. Baina emakume asko dira ez dutenak barruan gauza arrotz bat eramatea atsegin. Zeintzu emakumerentzat izango litzateke arrisku bat espiralea eramatea? Sexugaitzak, maginitisa, umontzi ttiekiegia eta hilekoaldi ugariak dituztenen-

tzat, kaltegarri da espiralea jartzea eta beste antisorgailu bat erabili beharko dute.

Baina, emakumeek lehen erabili zuten antisorgailua ez ziren pildora eta espiralea izan. Hauk, 1960garren arte ez ziren ezagutzen. DIAGRAMA izan zen 1880garrenean erabili zen lehen antisorgailua. Diagrama hau gomazko tresna tiki bat izaten da; espermatozidoak hiltzen dituen krema bat jartzen zaio eta maginaren atzeko aldean ezartzen da. Hutsak 2-10o/okoak izaten dira, gehienak, erabiltzen den krema espermerhailea ez delako oso ona, beraz, kontu eduki behar da krema hau erostean, efektiboa izan dadin.

Diafragma, sexual harreman bat izaten den aldioro jarri behar da. Hau batzuzentzat arazo bat da, harremanari espontaneitate kentzen duelako, beste batzuk berriz, bere maitasun jokuaeren parte egiten dute diafragma jartze hau. Norentzat ez da komenigarri antisorgailu hau erabiltzea? Umontzia bere tokitik at duten emakumeentzat. Bestaldetik, emakume batzuri nazka ematen die harreman bakoitzean tresna hau bere maginan sartu behar izateak, horiek hobe dute beste antisorgailu bat erabiltzea, ahal ba dute, nazka hau gainditu arte behintzat. Erabili nahi dutenek, kontu eduki behar dute diafragma erostean. Espainiar estatuan ez da fabrikatzen; eskatzeokotan, mediku bati eskatu behar zaio eta lehen, azterketa sakon bat egin behar da maginaren neurriak hartuz eta guzti. Behin neurriak jakinez gero, medikuak diagrama eska dezake. Emakumeak diafragma eskuratu duenean, ondo jartzen ikasi behar du eta medikuak erakutsi beharko dio nola egin.

Antisorgailu honek dituen abantailak ondoko hauk dira: ez ditu bigarren mailako ondoriorik, ondo erabiliz gero efektiboa da, hilekoaldia dugun bitartean sexual harremanak izateko oso ondo dator, odola pasatzen uzten ez duelako.

Diafragma, emakumearen preserbagarri bat den bezala, ba dago gizonak erabili behar duen preserbagarri bat ere antisorgailu gisa, eta KONDOKIA deritza. Hau libreki saltzen da gure herrian, zergatik?; ba emakumea sexualki askatzeko asmatu ez zelako, baizik eta gizonak beren sexual harremanetan sexualgaitzik har ez zezaten, eta noski, gizonaren sexual harremanak "zilegizkoak" dira gure gizarte honetan... ez horrela emakumearenak. Dena dela, antisorgailu bezala erabil daitekeenez, positiboa dirudi kondokia, gainera, gizonak ere bere erresponsabilitatea hartu behar duela uste dugulako, eginkizun honetan. Efektibotasun aldetik, bakarrik erabiltzen bada, 15-10o/oko hutsa izan dezake. Krema espermerhaile batekin batera erabiliz, ez dago hutsik. Kondoiak, gizonaren sentikortasuna guttiagotu egiten du; hau gizonak desanbantail bat bezala ikusten dute, baina zenbait kasutan oso ondo dator, sexual harreman luzeago bat posible egiten duenez.

Batzutan, antisorgailu bezala, espermerhaile

hutsak erabiltzen dira, bai FOAM - AEROSOL moduan edo krema gisa. Hauen eginkizuna, dakigun bezala, espermatozidoak hiltzea da. Horretarako, harremana izan baino pixka bat lehentxoago maginaren atzekoaldean ezartzen da espermerhailea eta 6 - 8 orduz utzi behar da barruan. Efektibotasun aldetik, FOAM edo aparrak, zihurragoak dira, baina gizonaren eta emakumearen genitalak irrita ditzakete. Hala eta guztiz ere, espermerhaile hau hobe da krema gisa erabiltzea eta preserbagarri batekin batera.

Gure herri honetan "legalak" diren antisorgailuak, erabili behar ez direnak dira hain zuzen ere. Metodo hauk ez dira efektiboak eta gainera osasunerako gaitz handiak ekartzen ditu. "Coitus interruptus", Ogino, eta horrelakoek, sexual harremanak moztu egiten dituzte beharrezkoa den lasaitasun eta konfidantza bikoteari kenduz eta gehien, emakumeari noski. Horregatik, emakumeok ez dugu metodo hau inoiz erabili behar geure sexualitate bilakatu nahi badugu.


Morale itxurati baten bidez, antisorgailuen erabilketa hertsatzen dutenek, beste aldetik, interesatzen zaienean, metodorik efektiboena erabiltzen dute: ESTERILIZAPENA. Emakumeentzat esterilizapen hau, Falopioren tronpak moztea edo erretzea da; esterilizatua izan den emakume batek ezin du inoiz umerik eduki. Gizonak ere esterilizatuak izan daitezke "vasectomia" deritzaon operazio bat eginez. Esterilizapena, kapitalistek, bektzekin, indiarrekin eta beste herri zapalduekin erabili eta erabiltzen dute, operazioa sofrizten duten emakume eta gizonen eritziarik eskatu gabe. Eta gu honen aurka gaude. Antisorgailuak, pertsonaren askatasuna lortzeko bidean nahi ditugu erabili eta bakoitzak erabaki beharko du zer nahi duen egin bere gorputzez, eta umerik nahi duen ala ez.

Gizonari dagokionean, ikertzapenak egiten ari dira berak hartzeko antisorgailu efektibo bat sortzen duten edo. Uste dugu, gizonak umea egiteko parte hartzen badu, ez egiteko ere bere erresponsabilitatea hartu behar duela. Baina gauzak dauden bezala kontzientzia aldetik, hobe dugu emakumeok gizonaz ez gehiegi fidatzea gai honetan, geu baikara umedun geratzen garenak ondorio guztiekin...

Orain, urrats bezala lortu behar duguna zera da: ANTISORGAILUEN LEGALIZAPENA, Seguritate Sozialaren partetik ordainduak izatea eta emakume guztientzat, aldizka beharrezkoa dugun medikuntza azterketa pasatzeko eskubidea. Beste aldetik, antisorgailuen gain eta geure sexualitateari eta gorputzari buruz informazio sakon bat behar dugu jaso ttikitandik.

Ikertzapenaren aurrerapenak ere exigitu behar ditugu, orain ditugun antisorgailuak hoba ditzaten, beren erabiltzeaz geure osasunean ondoriorik izan ez dezagun.

Itziar Urtasun



unen Txapelketa



ASTABELARRIAK

Irakurle batek bidalirik, hona hemen aste honetarako belarridunak.

Guk geuk, behialako España no hay mas que una haren kontrara edo, ba genekien Bizkai bat baino gehiago zeudela Euskal Herrian, baina oraingo honek erabat nahastu gaitu, Hirugarren Bizkaiko bertsolari gaSteen txapelketa hori zein Bizkaitan egingo den ez dakigulako. Bizkaiko bertsolari gazteen hirugarren txapelketa ez ote?

Zeanuritarrek, gainera, Euskal Herriari hainbeste fraide eta monja emateagatik edo, beren herria, Zeanuri beharrean, Ceanuri jarrita ikusi behar dute.

Gure hizkuntzaren kontrako atentatu kriminal eta, orain esaten denez, اساسينو guztiongatik, urrezko astabe(rtso)larri bana erregalatzen diegu egileei gaztigutzat, hurrengoan bekatu itsusi horretatik zuzen daitezen, bertso hobeak eginez. Kittol

ERDIKO BIDEA

Ni ez naiz foot-ballzalea eta horrexegatik ez nintzen Madrilera dibisak bertan uztera joan. Aho dezadan, ordea, ba dudala nolabaiteko pena gaitu Athletikoaren zortetik ezagatik.

Penagarriagoa baina, Burgosekoa. Egia esan, kazetek barreiatu dituzten albiste nahasiengatik oraindik ez dut ongi ulertu bertan zer arraio gertatu zen.

Batzuk diotenez, burgosatarrek euskaldunak burla egin, harriak bota, automobilen beirak hartu eta ikurrinak erre omen zizkieten.

Beste batzuk, ordea, bilbotarrek mila pezetakoak erakutsiz eta ongi pusketak jaurtikiz Burgosko jendea probokatu egin zutela diote.

Batzuen eta bestean aldebatekokeria ikusirik irakurle zuhurrak erdiko bidea hartu beharko dute egia jakiteko, bertso bien artean synthesis bat egin.

Horrela, Burgosen gertatu zena, hauxe izan zitekeen pentsatu beharko dugu: Burgoseko jendeak, ikusirik ez horrituta, euskaldunei mila pezetakoak erakutsiz eta ongi pusketak jaurtiki zizkietelako, beraien busetatik jendearen kontra harrika hasi zirela. Burgoseko jende gaixoa gaiztoki zaurituz. Indar Urria agentziak holaxe emanen du, seguraski, bertso

LANKIDE AURREZKIAK honelaxeko **200 ERREGALI** zozkatuko ditu...

Lankide Aurrezkiak, apiril eta maiatzeko aurreztaileeri altzairu herdoigaitzezko mahaitresneria dotoreak eskaintzen dizkie. 200 familitan urteetan ere pozez erakutsi eta zorionez gozatuko diren erregali dotoreak, halafede!



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREZKIA



Gipuzkoan, nor gu baino gertuago?

91 etxe zuretzat hurbilago

Izan ere, Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa etxe hau duzue Gipuzkoako Kutxetan lehengoa.

Horregatik, gipuzkoarren zerbitzurako beti gertu eta prest egotera behartuak gauzkazu. Hauxe da gure egitekorik nagusiena. Horretarako sortu zen, batik bat, Caja de Ahorros

Provincial de Guipúzcoa 1896. urtean. Gipuzkoarre kutxa duzue Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa. Ba duzu arrazoirik, beraz, gurekin elkarturik egon zaitezen.

Utz ezazu zeure ueste osoa Gipuzkoako lehen Kutxa den etxe honetan.

**CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA**

